


Ametsak borroka bide bihurtu dituzten atzoko, gaurko eta biharko euskal emakume guztiei: Zuek ereindako hazia kimu bihurtzen ari delako...

Esker mila egitasmo honetan lagundu diguzuen guztioi, batez ere, Marije Apodaka eta Bea Ugarteri. Zuek gabe proiektu hau ez litzateke egi bilakatuko.

Euskal Herriko Bilgune Feminista

 euskal herriko
bilgune feminista



I.S.B.N: 978-84-612-1365-8

Fotokonposaketa eta Inprimategia: Arteder

Diseinu eta maketazioa: Pablo Lekue

1. SARRERA.....	5	h.Hizkuntza.....	101
2. GIDAREN ERABILERA.....	10	i.Espazioa eta denbora.....	111
3. ATAL HEZKIDETZAILEAK		j.Ebaluazioa.....	131
a.Balioak eta kompetentziak.....	13	4. GLOSATEGIA.....	141
b.Helburuak.....	27	5. ERANSKINAK	
c.Edukiak.....	35	a.Euskara ez sexista.....	149
d.Metodologia.....	49	b.Tutoretzetan garatzeko eduki	
e.Ikastetxearen antolaketa.....	63	hezkidetzailleak.....	156
f.Materialak.....	75		
g.Harremanak.....	83		



Zer da Hezkidetza Gida?

Eskuartean duzun Hezkidetza Gida, Euskal Herriko Bilgune Feministak orain arte hezkuntza alorrean hartutako konpromiso eta egindako lanketaren fruitua da.

Urteetan zehar burututako eztabaida, diagnostiko eta elkartrukeen ondorioz sortu dugu tresna praktikoa berri hau.

2003. urtean Euskal Herriko Bilgune Feministak *minimoen taula* aurkeztu zuen.

Minimoen taulak hainbat emakumeren artean osatutako hezkuntzaren inguruko diagnostikoa izan zuen abiapuntu.

Sexu bereizkeria gainditzeko bidean kontutan hartu beharreko irizpide orokor batzuk zehaztu

genituen, detektatutako zenbait hutsuneei aurre egiteko asmoz.

Eraitza, 10 puntuz osatutako aldarrikapen taula izan genuen, minimoen taula deritzoguna.

Hezkuntza formalean lanean dabiltzan zenbait eragilek onartu eta berea egin zuten, honen lanketa eta zabalitzearen konpromisoa hartuz.

Minimoen taula, hezkuntza hezkidetzaile baten alde lanean jarduteko tresna gisa ulertu dugu eta ulertzen jarraitzen dugu.

Urteak pasa ahala, Euskal Herriko Bilgune Feministak beste urrats bat eman nahi izan du, HEZKIDETZA GIDA sortuz.

Gida honek minimoen taula aintzat hartu eta honen garapenerako bitarteko berriak eskaintzeko asmoa du, alde teorikoa eta praktikoa uztartuz.

Batetik, Unitate Gidak sortzerakoan edozein hezitzailek eskuragarri izango duen gida sortzea izan da gure helburua, bitarteko praktikoa eta erabilerraza eskainiz.

Finean, hezkidetzaren ikuspuntutik, eman beharreko pausuak era argian antolatuko dituen liburuxka sortu nahi izan dugu.

Bestetik, Euskal Herriko Emakumeon Eskubideen Gutunak¹ barnebiltzen dituen helburuak iparrorratz izanda, bide horretan pausuak eman eta konpromisoa hartzea denon ardura dela uste dugu.

Hezkuntza guneetatik ere konpromisoak hartzeko eta bide horretan lanketa egiteko, Euskal Herriko Bilgune Feministatik honako gida hau aurkezten dugu norberak pausu garrantzitsuak eman ahal izan ditzan eta hartutako konpromiso honetan lagungarri izan asmoz.

1: Ikus <http://www.emakumemartxa.org>

Emakumea hezkuntzan

Emakumeek paper ezberdina jokatu dute hezkuntzan historian zehar.

Mendebaldeko kulturetan, hezkuntzarako eskubidea ukatua izan zaie urte luzeetan.

Hezkuntza sistemaren oinarritzko antolaketa fase ezberdinei erreparatzen badiegu, ondorengoa ikusiko dugu: hasiera batean gizonetzko dirudunek soilik zuten hezkuntza jasotzeko aukera; emakumeak etxean geratzen ziren eta garapen intelektuala beraien kabuz eta kasu askotan ezkutuan egin behar izaten zuten.

Beranduago, hezkuntzarako eskubidea lortu arren, neska eta mutilak generoaren araberako hezkuntza jasotzen zuten.

Gela ezberdinetan biltzen ziren, curriculum zeharo ezberdina zuten... finean, neskak esparru pribaturako (etxea, familia...) eta mutilak esparru

publikorako (produkzioa, bizitza soziala...) prestatzen zituzten.

Mugimendu pedagogiko berrien sorrerarekin batera, eskola mistoak sortu eta neska-mutilak espazio berdina konpartitzera pasa ziren.

Horrela, sexu biak gela berean elkartu ziren curriculum berarekin.


Askok uste zuten aldaketa honek arazo guztien konponbidea ekarriko zuela, hurrengo belaunaldien arteko sexu parekidetasuna ziurtatuz.

Denborak kontrakoa erakutsi digu: neskak eta mutilak elkartzean, ez baitzen inolako neurririk hartu jendartean bertan sexu batek bestearekiko jasaten zuen zapalkuntza ekiditeko, eta hala, eskolan ere jendartean nagusitzen diren ereduak, estereotipoak, balioak... urteetan zehar errepikatu direla ikusi da.

Egun, arazoa ez da emakumeak hezkuntzara, irakaskuntzara, ikerketara eta kudeaketara iritsi ahal izatea, baizik eta jarduera horietan duten lekua, bizi duten egoera: hautatzen dituzten titulazioak eta ezagutza arloak, beren ibilbide akademikoak eta profesionalak, botere guneetan duten statusa, irakasten diren edukiak, erabiltzen diren metodologiak, baliabide didaktikoak, ebaluazio irizpideak eta tresnak, onartzen diren arautegiak eta aurrekontuak, azken finean, hezkuntza jardueretan oharkabean geratzen den sexu bereizkeriak emakumeen auto-kontzeptuan eta lorpen itxaropenetan eragiten dituen ondorioak.

SARRERA

Beraz, gaur egun, ikastetxeak mistoak izateak ez du esan nahi parekidetasuna dagoenik: ikasgaien ikuspegia erabat androzentrikoa da, osagai sexistak presente daude bai ageriko eta bai ezkutuko curriculumetan (hizkuntzan, materialean, jarreretan, balioetan...), eta hori guztia gutxi balitz, itxurazko berdintasun batean bizi garenen ustea zabaldu da jendartearen.



SARRERA

9

Hezkuntza funtzioak. Hezkuntza parekidearen garrantzia.

Gure ustetan, Hezkuntza Sistema, sozializatorako oinarritzko bitartekoa da, eta jendarte eredu birsortzeko baino, eraldakuntzarako bitartekoa izan behar du, hots, pertsonen garapenerako bitarteko askatzaile bilakatu behar du, pertsona aske eta integralak heziz, eta sexuen arteko parekidetasunaren alde eginez.

Batetik, ezberdintasun sozialak gainditzeko balio izango du, eta bestetik, sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko.

Bide horretan, heziguneetan parekidetasuna lortze bidean, HEZKIDETZAREN lanketa integrala funtsezkoa ikusten dugu.

Zer da Hezkidetzatza?

Bere banakotasun, berezitasunaren arabera, izaera ezberdinak onartuz, generotik at egiten den pertsonen hezkuntza litzateke.

Irizpide sexistek barnebiltzen dituzten, gizon eta emakumeei egokitutako rol, balore, portaerak e.a. transmititu gabe heztea da.

Pertsona autonomoak izateko, gure bitzitza proiektuen jabe izateko, hurbileko inguruarekin elkarbizitzan, behar ditugun gaitasunak garatzea ahalbidetzeko helburuekin.

Kontzientea den prozesu hezitzailea da eta neska eta mutilen arteko aukera berdintasunean oinarritzen da. Pertsonen garapen integrala lortu nahi du.

Eskuliburu honetan aurkezten den gida edozein hezitzailek unitate didaktiko bat edo programazio bat prestatzerakoan kontuan izateko gomendio-sorta baino ez da.

Gida hau hezkuntza formalean aritzen den irakasleei zein hezkuntza ez formalean eragiten duten hezitzaileei zuzenduta dago.

Kolektibo bakoitzak bere egunerokotasunaren ezaugarrietatik abiatuz, proposatzen ditugun behar beste edukiak erabil ditzake.

Azken finean, gure asmoa, hezkidetzazabaltzea da.

GIDAREN ERABILERA

Lan hau burutu baino lehen, gida teoriko-praktikoa izan behar zuela erabaki genuen: alde batetik, marko teorikoaren bidez hezkidetzaren aspektu guztiak plazaratzeko, eta bestetik, adibideen bidez, hezkidetzaren praktikotasuna ikustarazteko.

Hori dela eta, ez dugu hezkidetzaren marko teorikoa jorratu, baizik eta hezkidetzazabaltzeko jorratu beharreko atalak.

Esan bezala, hezkidetzaren atalak garatu dira, hain zuzen ere, Euskal Herriko Bilgune Feministak minimoen taulan identifikatzen zituenak: balioak eta kompetentziak, helburuak, edukiak, metodologia, ikastetxearen antolaketa, materialak, harremanak, hizkuntza, espazioa eta denbora eta, azkenik, ebaluazioa.

Atal bakoitzaren egitura sortzeko hezitzaile askok egiten dituzten galderak erabili ditugu, hau da, gai zehatzaren definizioa azaldu ostean, hezitzaile batzuek egin dizkiguten galderari erantzuna ematen saiatu gara, horrekin batera adibideak ere eman ditugu.

Atal guztietan bibliografia eta web guneak sartu dira, sakonean landu nahi izanez gero, erreferentzia gehiago izatearren.

Hezitzaileen zalantzak, gaizki-ulertzeak, erresistentziak eta jakin-mina izan dira gure bidea.

Horrela, atal honetan edozein irakaslek izan ditzakeen galderari erantzuna ematen saiatu gara:

-eta, orain, zer egingo dut gida honekin?

Hiru aukera daukazu:

Lehenengoa, hezkidetzarekiko konpromiso pertsonala hartu.

Bigarrena, joan zure zentrora eta Eskolako kontseiluan ezagutarazi eta erabiltzeko konpromiso formala har dezaten bultzatu.

Hirugarrena, zure programazioak egiterakoan atal hauek kontuan hartu.

Gauza bakarra nahiko genuke: hezkidetzaillea izan zaitez!!!!

- Balioak eta kompetentziak
- Helburuak
- Edukiak
- Metodologia
- Ikastetxearen antolaketa

- Materialak
- Harremanak
- Hizkuntza
- Espazioa eta denbora
- Ebaluazioa

Definizioak


Balioak:

Proiektu idealak, sinesmenak, norberaren iritziak dira, jendarte mailan eraikiak, portaera, nortasuna eta, azken finean, bizitza bideratzen laguntzen dutenak.

Zerikusia daukate motibazioarekin, pertsonen interes eta beharizanengatik.

Balioek hiru dimentsio dituzte:

⇒ Objektiboa, berez existitzen direlako eta balioa daukatelako



⇒ Subjektiboa, pertsonarentzat interes bat adierazten duten neurrian baloratzen direlako.

⇒ Izaera soziala, indibiduo talde zehatz baten helburua direlako.

Adibidez,

“justizia” kontzeptua garbi ikusten ditugu balioaren hiru izaera hauek:

Balio objektiboa da, subjektiboa ere bai norbanakoaren interesekin erabat lotuta dagoelako eta azkenik, talde sozial askoren helburua delako.

Oinarrizko Konpetentziak:

Kontzeptu horren erabileran eta esanahian ez dago homogeneousutasunik edo adostasunik: amaierako gaitasunak, nahitaezko konpetentziak, konpetentzia orokorrak, gakoak, zeharkakoak, mugakideak...eta beste esamolde batzuk erabiltzen dira.

Zenbait definizio:

- “Egoera desberdinetan eraginkortasunez *jarduteko* gaitasuna, ezagutzetan oinarrituta baina horiei mugatzen ez dena” (Perrenoud, 1997)
- “Era ezegokian eskaerei *ez erantzuteko eta egitekoak gauzatzeko gaitasuna*.”

Trebetasun praktikoak, ezagutzak, motibazioa, balio etikoak, jarrerak eta beste jendarte osagai eta portaera ezaugarri batzuk *konbinatzen* direnean Sortzen da.

Horiek aldi berean mobilizatzen dira *ekintza eragilea* lortzeko” (DeSeCo txostena, 2002)

- “Ezagutzen, trebetasunen, jarreraren eta baloreen konbinazio integratua, *testuinguruari* egokituak, oinarrizko hezkuntzan dauden ikasle guztiek *garapen pertsonala lortzeko, hiritar aktibo bihurtzeko eta jendartean integratzeko* behar dituztenak”(EAEko Curriculum Dekretuaren zirriborroa,2007)

Definizio guztiek komunean honakoa dute:

“Egiten jakitean” datza, hau da, jakintza kontuan izan du, baina *aplikatua*.

“Egiten jakin” hori zenbait *testuinguru eta egoera praktikora* egokitu eta erabili ahal izan behar du.

Izaera *integratua* du; beraz, konpetentzia bakoitzak ezagutzak, prozedurak eta jarrerak hartzen ditu.

Hezitzaile batek egin ditzakeen galderak eta erantzunak:

1. Zergatik da garrantzitsua balioak identifikatzea?

Balioek konpetentzien garapena erabakitzen dute eta jarreraren bultzatzaileak dira.



Jendartean indarra duten balioek, adibidez, konpetentziak era batean edo bestean garatuak izatea determinatzen dute eta, zentzu horretan, pertsonen garapen osoan indarrez eragiten dute.

Konpetentziak garatu daitezkeen pertsonen ahalmenak dira.

Oso garrantzitsua da, lehenengoz, zein baloreei lotuta dauden jakitea eta, bigarrenaz, konpetentzien eta balio horien artean hierarkia ez egotea.

Adibidez, sexualitatea ondorengo baloreekin lotuta egon daiteke: errespetua, desira, plazera, samurtasuna ... edo indakeria, posesioa, boterekeria, mina...


Aukeratutako baloreen arabera, sexualitatearen garapena desberdina izango da eta garatu beharreko ahalmenak gehi jarrera, prozedura, kontzeptuak, metodologia, eta abarrak desberdinak izango dira.



2. Zeintzuk dira *sexua*² eta *generoa*³ dela eta diskriminazioak ekiditeko hezkuntzaren oinarritzat hartu beharreko balioak?

Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Gutunak⁴ aipatzen dituen hiru printzipioak hartzea proposatzen dugu:

*Parekidetasuna*⁵, *Elkartasuna* eta *Askatasuna*.



Horiek oinarritzat hartzeak suposatzen du beste batzuk ere kontuan izatea, kasu batzuetan, edo ondorioak izatea beste batzuetan.

Adibidez: errespetua, aniztasuna, lankidetzaz...eta bakea, justizia, zoriontasuna...

2: Ikus glosategia

3: Ikus glosategia

4: http://www.emakumemartxa.org/carta_eh_2_eusk.htm

5: Ikus glosategia

3. Zeintzuk dira sexua eta generoa dela eta diskriminazioak ekiditeko landu beharreko kompetentziak?

Oinarrizko kompetentziak direla eta, sailkatzeko proposamen ezberdinak aurki ditzakegu:

Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumerako I. proposamena hartzen badugu, bost agertzen dira:

Pentsatzen eta ikasten ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi eta egiten eta ekiten ikasi.

Hau izan daiteke gure abiapuntua.

EUSKAL CURRICULUMA

pentsatzea eta ikastea

komunikatzea

elkarrekin bizitzea

norbera izatea

egitea eta ekitea

4. *Zeintzuk dira sexua eta generoa dela eta diskriminazioak ekiditeko, konpetentziek bete behar dituzten irizpideak?*

⇒ Pertsonaren garapen osoa ahalbideratzea, eremu guzti hauek kontuan hartuz: identitatea, arlo soziala, adimena, gorputza eta emozioak.

Hau da, guk programatzen ditugun jardueren bidez ikasleek edo partaideek jasotzen duten heziketan, bermatu behar dugu eremu guztien garapena.

Adibidez, komunikazioa. Konpetentzia hau askotan ikuspegi oso mugatutik lantzen da, mintzamenarekin soilik lotuta eta normalean hizkuntza sexista erabiliz.

Pertsonaren bost eremuak kontuan baditugu komunikazioaren garapena askoz konplexuagoa da.

Honakoak garatzea eskatzen du: gorputz adierazpena, Ni mezuak, asertibitatea, ideien argitasuna....

⇒ Pentsatu, sentitu eta egiten denaren arteko koherentzia barne izatea, norbere buruarekiko zein jendartearekiko kritikotasuna garatzeko.

Adibidez, "elkarrekin bizitzen" konpetentea izateak eskatzen du hainbat ekintza egitea, baina horrekin lotuta bat datozen sentimenduak eta pentsamenduak.

Ikaskidea laguntzeak, adibidez, bat etorri behar du hori egitean gustura sentitzearekin eta norberaren betebeharra denaren pentsamenduarekin.

⇒ Konpetentzien garapena parekidetasunean oinarritutako elkarbizitzarako lagungarria izateko moduan egitea.

Adibidez, hainbat kasutan mutilek beharko dute neskek hainbeste behar ez duten hainbat kompetentzia indartzea, eta alderantziz.


- ⇒ Nor bere ikaskuntza prozesuaren eragile nagusia izatea, eta ondorengoa oinarritzat hartzea: autoritatea eta *boterea*⁶. Ikaslea momentu guztian jakin behar du zein kompetentzia garatzen ari den, zer egin behar duen, zertarako, nola...
- ⇒ Norberaren bizitzan, etxekoan, lagunene artekoan, zein profesionalean... kompetente izateko kontuan hartu beharrekoak. Hau da, eremu publikorako zein pribaturako kompetentziak izatea.

Adibidez, afektibitatea ere eskolan landu behar da, ez da, askotan entzuten den moduan *eremu pribatuari*⁷ dagokion zer bait.

6: Ikus glosategia

7: Ikus glosategia

BALIOAK ETA KONPETENTZIAK



5. Zeintzuk dira balio eta kompetentzia horiek barneratzen lagunduko duten jarraibideak?

- ⇒ Hezkuntza komunitateko kide guztiak pertsona bezala kontsideratuak izatea.
- ⇒ Hezitzaile gisa betetzen dugun jendarte funtzioaren kontzientzia izatea.
- ⇒ Pertsona guztien jakindurian sinistea.
- ⇒ *Sexismoa*⁸ identifikatzen jakitea.
- ⇒ Oinarrizko baloreen artean hierarkiak ez egitea.
- ⇒ Elkarren autoritatea onartzea.
- ⇒ Akatsetatik ikasten jakitea.
- ⇒ Konfiantza giroa lortzea.
- ⇒ Eskuzabaltasuna eta elkarrizketa jarrera.
- ⇒ Sorrarazi nahi ditugun baloreetan eredu izatea.
- ⇒ Elkarrekintza positiboak izateko aukera emango duten abilezi sozialak erabiltzea. Kontrako egoerak konpontzea eta positibo bihurtzen jakitea.

6. Konpetentzia guztiek garrantzia bera dute?

Denak dira garrantzitsuak eta elkar lotuta daude.

Baten garapen egokia ezin da ulertu besteen garapenik gabe.

Hala ere, parekidetasunaren analisitik abiatzen bagara eta genero identitateak emakumeen eta gizonen arteko botere desorekarekin zerikusi handia izanik, *izaten jakitea* konpetentziak garrantzi berezia du.

Beste konpetentzien garapenaren ardatza kontsidera dezakegu.

Hau da, identitatea sexua eta generoaren arabera garatzen bada, muga horiek beste konpetentzien garapenean ere nabarmenduko dira; beste aldetik ere, identitatearen garapena beste konpetentzien garapenak determinatzen du.

Eta lehen aipatutako baloreei bueltatuz, ez da ahaztu behar identitatearen eraikuntzarako, “*autonomia*”⁹, “*independentzia*” eta “*nork bere burua baieztatzea*” gaitasunak ezinbestekoak direla.

Eta horiek nola garatuko ditugu ez badugu askatasuna baloratzen?

9: Ikus glosategia

Balore ez sexistak transmititzeko adibidea:

Errekuperatu behar ditugu askatasunean, parekidetasunean eta elkartasunean oinarrituta, historian zehar emakumeok barneratu ditugun baloreak eta horiekin lotuta garatu ditugun ahalmenak (sentiberatasuna, emozionaltasuna, enpatia, zaintza...) eta gizonezkoek barneratu eta garatu dituztenak (ekimena, arrazionaltasuna, protagonismoa...).

Geroago, balio horiek garatzeko bideak ikasleei edo partaideei eskaini.

Adibidez, gure jendarte *patriarkarrean*, erantzukizun ahalmena emakumeari ala gizonari lotuta, era ezberdinean ulertzen dugu, balore ezberdinekin lotuta.

10: Ikus glosategia

GIZONARENGAN ESPERO DENA ONDOKOAREKIN LOTUTA BALORATZEN DA:

- ⇒ Etxetik kanpoko antolakuntza
- ⇒ Jendarte mailako guztia kudeatzea, politika, ekonomia, kultura...
- ⇒ Etxeko soldata onena izatea. Familia ordezkatzeko hainbat eremutan.

EMAKUMEONGAN BERRIZ HONELAKO ALDERDIEKIN LOTUTA BALORATZEN DA:

- ⇒ Etxe barruko antolaketa eta arazoak konpontzea.
- ⇒ Eguneroko etxeko ekonomia kudeatzea.
- ⇒ Haurrak eta beste pertsona batzuk zaintzea.
- ⇒ Familia barruko harreman afektiboak zaintzea.

Eta ondorioz, gizonek garatzen duten erantzukizuna eta emakumeok garatzen duguna ez da bera izaten eta ezta berdin baloratzen ere.

Beraz, biak garrantzitsuak direnez, bai neskei bai mutilei, erantzukizuna modu osoan garatzeko aukera eman behar zaie.


Alde batetik, erantzukizuna garatzeko ondoko jarrerazko edukiak izan daitezke:

- ⇒ “eskolako eguneroko zereginak betetzea”
- ⇒ “tratu txarreko jarrerari erreparatzea ”

BALIOAK ETA KONPETENTZIAK

Bestalde, egin zeure buruari galdera hauek:

- ⇒ Emakumezkoen kulturaren garatutako balore positiboak planifikatu dira zure eskolan? Zeintzuk dira?
- ⇒ Gizonezkoen kulturaren garatutako balore positiboak planifikatu dira zure eskolan? Zeintzuk dira?
- ⇒ Aurreko baloreak zein arlotan hartzen dira kontuan? Nork hartzen ditu bere gain? Non islatzen dira?



Balore sexistak gainditzeko bitartekoak (erreferentzi bibliografikoak, web guneak, aholkulariak, esperientziak, material didaktikoa,...):

- ⇒ Emakunde. (1992). *Testu liburuen bidez zabaltzen al ditugu sexu-baloreak?*. Gasteiz: Emakunde.
- ⇒ Jourdan, Clara; Tome, Amparo, Montoya, Milagros; Gobeta, Maria; Salguero, Jose M^a. (1998). *Educar en relación .Cuadernos de educación no sexista*, 6. Madril: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Instituto de la Mujer.
- ⇒ Sau, Victoria. (1990). *Diccionario ideológico feminista*. Bartzelona: Octaedro-EUB.
- ⇒ Salas Garcia, Begoña. (2003). *Diccionario de la pentacidad*. Bartzelona: Octaedro-EUB.
- ⇒ Salas Garcia, Begoña eta lankideak. (1997). *Ikastetxearen hezkidetza-eredua egiteko gida*. Gasteiz: Emakunde.
- ⇒ Emakunde. (1995). *Generoa eta baloreak*. Gasteiz: Emakunde.

Definizioa:

Helburuak dira, ikasleek edo partaideek ikaste-irakaste prozesuari esker, lortu beharreko hainbat ahalmenen garapenerako gida.

Hau da, kompetentziak izateko eta pertsonaren garapen osoa lortzeko beharko dituzten gaitasunen jarraibideak.

Gaitasunen garapenerako kontuan izan behar ditugu aspektu ezberdinak: afektibotasuna, kognitibotasuna eta ekintza.

Eta eduki ezberdinetaz baliatuko gara: *jarrerak, kontzeptuak eta prozedurak*.¹¹

Beraz, helburuen formulazioa batzuetan aspektu batekin lotuta egongo da, eta beste batzuetan beste batekin.

Hezitzaile batek egin ditzakeen galderak eta erantzunak:

1- *Zeintzuk dira sexua eta generoa dela eta diskriminazioak ekiditeko, helburuek bete behar dituzten irizpideak?*

Konpetentzien kasuan kontuan izan ditugun irizpideak kontuan izango ditugu hemen ere:

⇒ Pertsonaren garapen osoa ahalbidetzea, eremu guzti hauek kontuan hartuz: identitatea, arlo soziala, adimena, gorputza eta emozioak.

Hau da, guk programatzen ditugun jarduerak dituzten helburuek berratu behar dute eremu guztien garapena.

Adibidez, komunikazioaren kompetentzia garatzeko helburua “nork bere ideiak azaltzen jakin”, helburu hori garatzeko kontuan izan behar ditugu hainbat aspektu: gorputz adierazpena, ni mezuak, asertibitatea, ideien

argitasuna...eta hauei begira jarduera egokiak aukeratu.

⇒ Pentsatu, sentitu eta egiten denaren arteko koherentzia barne izatea, norbere buruarekiko zein jendartearekiko kritikotasuna garatzeko.

Adibidez, helburu gehienetan azaltzen diren aditzak “egin” arekin zerikusia dute, batzuek ere “pentsatu”arekin eta inoiz ez “sentitu”arekin.

Eta hori gero ebaluazioetan islatzen da. Aukera ematen zaie ikasleei pentsatzen dutenaz, sentitzen dutenaz jabetzeko?

Kontuan izaten ditugu alderdi hauek hurrengo esku hartzeak planifikatzeko?

⇒ Parekidetasunean oinarritutako elkarbizitzarako lagungarriak diren helburuak kontuan izatea.


Adibidez, *eremu pribatuan zein publikoan*¹² autonomia izatea.

⇒ Nor bere ikaskuntza prozesuaren eragile nagusia izatea, eta ondorengoa oinarritzat hartzea: autoritatea eta boterea.

Ikasleek jakin behar dute zeintzuk dira helburuak, zeregin behar duten lortzeko, noraino lortu dute, nola hobetu dezakete...

⇒ Norberaren bizitzarako, etxekorako, lagunen artekorako, zein profesionalerako... beharrezkoak diren kompetentziak garatzeko helburuak kontuan izatea.

Adibidez, elkarrekin bizi izateko kompetentzia izateko lortu beharreko helburua zera izan daiteke nor bere akatsak ezagutu, onartu eta gainditzeko konpromisoa hartu.




12: Ikus glosategia

2. *Helburuak aurreko irizpideei jarraitua idatzitakoak izan daitezke, baina horrekin bermatzen dugu gure eskola-jarduna hezkidetzaillea den?*

Helburuak ondo zehaztuta eta formulatuta izatea oso garrantzitsua da, baina ez da nahikoa.

Benetan gure esku hartzeak eta eginkizunak *berdintasunaren* aldekoak izateko, helburu horiek lortzeko lantzen ditugun edukiak, metodologia, antolamendua, ebaluaziorako adierazleak eta irizpideak... dira ezinbestekoak.



3. *Helburuak berdinak izan behar dira neskontzako edo mutilentzako?*

Helburuak, noski, berdinak izan behar dira mutilentzako zein neskontzako.

Parekidetasuna lortu nahi badugu, jartzen ditugun helburuek eta lan egiteko moduek bermatu behar dute *hezkidetzaren*¹³ helburuekin bat datozela.

Helburuak lantzeko erabili dugun irizpide bat pertsonaren garapen osorako lagungarriak izatea izan da.

Baina egia da ere, batzuen eta besteen sozializazio prozesuen artean generoa dela eta, ezberdintasunak egon daitezkeela eta kontuan hartzekoak izan behar direla.

Demagun Musika arloan guztiontzako helburua dela “Mugimendua eta dantza, irudiak, sentsazioak eta ideiak adierazteko baliabide gisa erabili eta horiekin gozatzea”.

Adin batzuetan topa dezakegu orokorrean mutilek zailtasun handiagoak dituztela dantzan aritzeko.

Kasu horretan, estrategia ezberdinak erabili behar ditugu mutilak anima daitezen, eta pertsonaren garapenerako garrantzitsua den helburu hori neskek zein mutilek gara dezaten.

Adibidez, sexuaren arabera erresistentziak egotekotan hobe da, hasiera batean taldeak egiterakoan neskek eta mutilak bereiztea, ekintza hori burutzen duten sexu ezberdinetako pertsona eredarriak aurkeztea, ...

13: Ikus glosategia

4- Guk hezitzaileok ere generoan sozializatuak izan gara. Zer egin dezakegu ikasleengan edo partaideengan ditugun itxaropenetan ez islatzeko?

- ⇒ Aurreiritzi sexistak¹⁴ aztertu.
- ⇒ Estereotipoak¹⁵ aztertu eta baztertu.
- ⇒ Hezkidetzarekin lotutako gaietaz prestakuntza izan.
- ⇒ Beste hezitzaileekin talde lanean aritu, zalantzak argitu...

14: Ikus glosategia

15: Ikus glosategia

HELBURUAK

- ⇒ Behaketa ohitura zabaldu: nor bere burua, gela partekatzen dugun lankideak, ikasleek, partaideek....
- ⇒ Eredu anitzak ezagutu.
- ⇒ Konparazioak ekin.
- ⇒ Guztion autoritatea onartu.

Emakume eta gizonen arteko parekidetasunaren aldeko helburuak programatzeko eta balioekin eta kompetentziekin uztatzeko adibidea:

Adibidez,

Helburua: sexualitatea bizitzeko era ezberdinak ezagutu eta baloratzea.

Balioak: parekidetasuna, elkarbizitza,...

Kompetentzia: pentsatzen eta ikasten ikastea.

Helburua:

-Nork bere ideiak eta nahiak era egokian adieraztea

-Hitzen bidez zein hitzik gabeko komunikazio egokia (ez sexista) erabiltzea

Kasu honetan, bizitza pertsonalari, etxekoari, lagunartekoari, profesionalari balioa ematea beharrezkoa da.

Balioak: aniztasuna, baieztapena, entzumen aktiboa, ...

Kompetentziak: komunikatzen ikastea.

Jarrera sexistak gainditzeko bitartekoak (erreferentzi bibliografikoak, web guneak, aholkulariak, esperientziak, material didaktikoa...):

- ⇒ Alarios, Teresa. (1999). *Identidad y Género en la práctica educativa*. Lisboa: Ed. Comissao para a Igualdade.
- ⇒ Salas García, Begoña eta lankideak. (1997). *Ikastetxearen hezkidetzaren hezkidetzaren egiteko gida*. Gasteiz: Emakunde.
- ⇒ Salas García, Begoña eta lankideak. (1997). *Ikastetxearen hezkuntza- eta curriculum-proiektua egiteko baliabideak*. Gasteiz: Emakunde.

Definizioa:

Edukiak eskolak transmititu behar dituen jakintzak dira.

Hiru motatakoak izan daitezke: *jarrerazkoak*, *prozedurazkoak* eta *kontzeptuzkoak*.


Lehenengoak, jarrerazko edukiak sentitu, pentsatu, ekin eta portaera eragiten dutenak dira; faktore horien artean, koherentzia eta egonkortasuna izan behar da.

Kompetentziak garatu ahal izateko ezinbestekoak dira eduki horiek.

Bigarrenak, prozedurazko edukiak, berriz, ekintza bat ordenatuta gidatzeko jarraitu beharreko arauak dira.

Eta, azkenik, kontzeptuzko edukiak helburuak lortzeko erabiliko diren jakintza gaiak dira.

Hauek guztiak esplizituki irakatsi behar dira, eta ez da pentsatu behar partaideek ezagutzen dituztela.



Hezitzaile batek egin ditzakeen galderak eta erantzunak:


1-Zer transmititu behar da edukien bidez?

Edukiek (jarrerak, prozedurak eta kontzeptuak) partaideen *garapen integrala* bermatzeko balio behar dute.

Gaur egun, batez ere, eredu publikoetarako baliagarria dena lantzen da.

Etxeko esparrua guztiz baztertuta edo azpi baloratuta geratzen delarik, hau da, etxearen esparruan gertatzen dena, adibidez, lana, zaintzak, harremanak, etxeko teknologia...ez dira jakintzat jotzen, eta kasu batzuetan horren inguruan zerbait egiten bada, ez du balio bera izaten.

Horren ondorioz, *irudikapen sinbolikoagatik*, edukietan emakumeak ez dira agertzen edo azpi-balorazioa jasotzen dute.



Adibidez:

Industrializazioaren prozesua irakasten denean, normalean, lan banaketa sexuala ez da aipatzen.

Jakin badakigu hori garai horren ezaugarri garrantzitsuenetariko bat izan zela.

Ez da transmititzen horrek emakumeentzako bizitza publikoan zein pribatuan zer suposatu zuen, ezta ere gaur egun, horren islak non topa daitezkeen.

Hau da, emakume eta gizonen arteko harreman sistema mota oso bat ezkututzen da.

2. Zer hartu behar da kontuan edukiak programatzerakoan?

Hiru eduki motak programatu behar dira, beraz, bakoitzari dagokiona aintzat hartu behar da.

Adibidez, eduki kontzeptualen artean, orokorrean falta dena "emakumeak" aldagai gisa agertzea da.

Beraz, hori gerta ez dadin, beti txertatuta dagoela konprobatuko da:

- Emakumeen ekarpenak agertzen dira?
- Emakumeen ekarpenen balorazio positiboa egiten da?

- Etxeko esparruaren jakintza (zaintza, etxeko ardurak, etxeko teknologia, etxeko jarduera zientifikoak, ...) erabiltzen da era esplizitu eta positiboan?

- Emakumeen ikuspegia islatzen da?

- Emakumeen interesa eta beharrak programatu dira?

Prozedurazko edukietan programatzen diren arauen bidez bazterketa sexista edo estereotipoen errepikapena alboratu daiteke.

Prozedurari esker, neskei rol berriak esperimintatzeko aukera eman ahal zaie, baita euren protagonismoa eta ekarpenak goraipatu ere.

Jarrerazko edukietan emakumeen kontrako sineskeriak bazter daitezke; horretarako jarreraren sisteman oinarrituko da bere osagaiak landuz: osagai kognitiboa, osagai afektibo-emozionala eta portaerazko osagaia.

3. Zelan jorratu jarrerak?

Jarrerak jendarte-baloreen subjektibazioa dira.

Portaera azaldu baino lehenagoko joera dira eta *sozializazio* prozesuaren ondorioak dira.

Beraz, *genero marka* izango dute.

Hori dela eta, emakume edo gizonen jarduerak, harremanak, iritziak, ekarpenak, positiboki edo negatiboki baloratzeko alde aurretiko joerak dira.

Jarrerak aldatzeko, aipatutako jarreraren sistema landu behar da:


- *Osagai kognitiboa*:

Jarrera oro ideietan edo ezagutzan oinarritzen da. Ideia edo ezagutza horiek edukiak bereganatzean lortzen dira, eta eduki horiek, informazioa prozesatzearen eta sozializazio

prozesuaren ondorioak dira.

Objektu, subjektu edo egoera bati buruzko sinesmenak, iritziak eta oro har informazioak.

Adibidez: pentsa dezakegu, zaintzaren erantzukizuna emakumea zein gizonarena dela.



- Afektibitatea-emozioa arloa:

Emozioak estimulu bereziki esanguratsuen edo garrantzitsuen aurrean azaltzen diren erreakzio subjektiboak dira, eta orokorrean erreakzio psikologiko bat eta ezaugarri kognitibo bat nahasten dute.

Objektu, subjektu edo egoera horrekiko sentimenduak, balioespenak, gorroto-maitea, eta abar.

Adibidez: Gizon zaintzaile bat ikustean satisfazioa, poztasuna, normaltasuna, ... sentitzen dugu.

-Portaerazko arloa:

Aurreko bi osagaien nahasketaren ondorioz, joera koherentea da.

Objektu horren aurrean zelan jokatu, zertan jardungo den eta jardunbide horri ekiteko dugun joera edo asmoa da.

Adibidez: Programa akademikoetan, mutilei ere zaintzarako jakintzak irakasten dizkiegu.

Jarrerak aldatzeko sistema horretan elementu berri bat sartu behar da, sistema osoa aldatzen baitu.

Baina, sistema orok oreka bilatzen du eta aldaketaren aurrean oztopoak jartzen ditu.

Sisteman elementu berri bat sartzean baliteke sistemaren oreka haustea, krisia piztu eta oreka handiagoa egituratzea.


Beraz, jarrera bat aldatzeko zertan oinarritzen den aztertu behar dugu (hiru osagai horiek) eta, hiru horientzako, positiboki elementu koherenteak eskaini.

Zenbat eta inplikazio pertsonal handiagoa eragin eta zenbat eta gehiago eztabaidatu, orduan eta jarrera gogorragoa eta irmoagoa garatzen da.

Adibidez: pentsa daiteke gizonak ere zaintzarako gai direla (ideologikoa), gure programetan hainbat ekintza sartu horretarako (portaera programatuta), baina gizon bat ume bat edo pertsona heldu bat zaintzen ikusten dugunean, egokia ez dela sentitu (afektibitatea).

Ez dago elementu hauen artean orekarik.

Beraz, *curriculum ezkutuaren*¹⁶ bidez, transmitituko dugu gizonak zaintzarako ez direla gai, estereotipo maskulinoarekin bat eginez.



16: Ikus glosategia

NESKAK	MUTILAK
<ul style="list-style-type: none"> • Ahulagoak direla pentsatzen da, beraz, horrela jokatzeari espero da. • Sentiberagoak direla pentsatzen da, beraz, emozionalki gehiago babesten dira eta adierazteko aukera gehiago ematen zaie. • Gaitasun intelektual gutxiago dutela pentsatzen da, beraz, akademikoki gutxiago espero da eta gutxiago baloratzen da. • Sozialki eta lan esparruan gutxiago espero da. • Sufrimendu eta arrisku gehiago izango dutela espero da, beraz, babes gehiago jasotzen dute; gainera, erronkarik izango ez dutela izango espero da. • ... 	<ul style="list-style-type: none"> • Indartsuagoak direla pentsatzen da, beraz, horrela jokatzeari espero eta onartzen da. • Emozionalki hotzagoak direla pentsatzen da, beraz, behar afektibo gutxiago ematen zaie eta emozioak adierazteko oztopo asko jartzen zaizkie • Gaitasun intelektual handiagoak dituztela pentsatzen da, beraz, gehiago espero da. • Sufrimendu eta arrisku gehiago izango dutela espero da, erronka handiak izango dituztelako. Beraiek bakarrik gaitutuko dituztela espero da. • Liskarretarako prest daudela pentsatzen da, beraz, errietak beraiek jasotzen dizute. • ...

4. Zein eduki mota esleitu zaie neskei eta zein mutilei tradizionalki?

Genero baloretan, sinesmenetan, ohituretan, espektatibetan¹⁷ eta abarretan oinarritutako sisteman ager daitezkeenak, nesken zein mutilen jokabideak baldintzatzen dituena.

Hori *jendarteratze prozesuaren*¹⁸ bidez transmititzen da, eta gelan elkarrekintzan sortutako jokabideetan ikus daiteke.

5. Hezitzaileen zein jokabideetan isla daiteke sexismoa?

Idatzita dagoena baztertzaila izateaz gain, esku-hartzean ere bazterketa sinbolikoa egin daiteke; hau dela eta, baztertzen ez dituzten ekintzak, arauak, adibideak, esplizituki zehaztu eta erabili behar dira.

Hezitzaileok gure curriculum ezkutua aztertu behar dugu. Horretarako hausnarketa fitxa hau egin daiteke:

17: Ikus glosategia


18: Ikus glosategia

EDUKIAK

1. taula: hezitzailearen jokabideak aztertzeko fitxa:

	<i>gainditu gabe</i>	<i>nahiko</i>	<i>ongi</i>	<i>bikain</i>
<i>jarreretan</i>				
Sexuaren arabera espektatibak ditut				
Sexua edo generoa gainditzen dituzten portaerak garatu ditut				
Neskekin zein mutillekin aritu naiz				
Portaera sexistak kritikatu ditut				
Mutillek eta neskek sentimendu berdinak dituztela pentsatzen dut eta horrela adierazi dut				
Nesken portaerak behatu eta aztertu ditut				
Mutilen portaerak behatu eta aztertu ditut				
Guztiek hitza izateko aukera eman dut				
Genero rola aldatzeko jarduerak gauzatu ditut				
Mutilen emozioak adierazteko guneak eta uneak sortu ditut				
<i>prozeduretan</i>				
Lengoaia ez sexistak erabiltzen dut				
Eredu femeninoak erabiltzen ditut				
Ettxeko lanak eta zaintza zientzia bihurtu dut				
Mezu sexistak birformulatu ditut				
<i>kontzeptuetan</i>				
Nesken eta mutilen beharrak kontuan hartu ditut, generotik at				

6. Zer behar dugu hezitzaileok?



Eduki ez sexistak programatzeko adibidea:

Edukietan “emakumeak” aldagaia erabiltzen den ala ez jakiteko, aurrean dituzun edukietan emakumea subjektu moduan txertatu: zerbait aldatzen da?.

Adibidez, historian emakumeen ekarpenak agertzen dira?; ekonomian, euskal emakume langileen esperientziak eta aldarrikapenak azaltzen dira?; fisikan, etxeko esparruko adibideak jartzen dira?.

Zerbait aldatzen denean, beste honi ere erreparatu behar zaio: *zein sentimendu sortzen da neskengan eta mutilengan?, zer diote?, gustuko dute?, zergatik?, ...*

Emakumeak aldagai bezala agertzen direnean, geure buruari galdera hauek egin behar dizkiogu: zein balio ematen zaie emakumeei edo euren irudikapenari?; estereotipatuak agertzen dira?

Eduki sexistak gainditzeko bitartekoak (erreferentzi bibliografikoak, web guneak, aholkulariak, esperientziak, material didaktikoa,...):

- ⇒ Emaisia Elkarte. (2006). *Aisialdian ipuinen bidez sexismoari aurre egiteko aholku sorta*. Bilbo: Urtxintxa Eskola.
- ⇒ Etxezarreta, Pilar eta lankideak. (1999). *Programa coeducativo de orientación académico profesional para la educación secundaria. Bideak egiten*. Gasteiz: Eusko jaurlaritzza.
- ⇒ Freixas, Ana. (1993). *La coeducación, un compromiso social: documento marco para Andalucía*. Sevilla: Instituto andaluz de la mujer.
- ⇒ Instituto Asturiano de la Mujer. (2001). *Materiales didácticos para la coeducación*. Oviedo: Gobierno del Principado de Asturias.
- ⇒ Medrano Bea (koord.) (2006). *Ipuinak ez sexistak izateko gida*. Bilbo: Urtxintxa Eskola.
- ⇒ Moreno, Montserrat. (1993). *Cómo se enseña a ser niña*. Bartzelona: Icaria.
- ⇒ Moreno, Montserrat; Sastre, Genoveva; Busquets, Dolors eta lankideak. (1994). *El conocimiento del medio: La transversalidad desde la coeducación*. Madril: Instituto de la Mujer. Ministerio de Educación y Ciencia.
- ⇒ Nieto, Antonio. (1999) *Estereotipos de género*. Lisboa: Ed. Comissao para a Igualdade.
- ⇒ Salas García, Begoña eta lankideak. (1997). *Ikastetxearen hezkidetzta-eredua egiteko gida*. Gasteiz: Emakunde.
- ⇒ Salas García, Begoña eta lankideak. (1997). *Ikastetxearen hezkuntza- eta curriculum-proiektua egiteko baliabideak*. Gasteiz: Emakunde.

ED-1000



Definizioa:

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua ordenatzeko eta bideratzeko modua.

Metodologia hezkidetzaila eragile (partaideak eta hezitzaileak) guztien ekintzan eta partaidetzan oinarritzen da.

Metodologia horrek, banaka zein taldean, ikerketa eta prozesuaren ebaluaketa ahalbidetzen du.

Etengabeko bilaketaren bidez, ezagutza aktiboa bultzatzen da, arazo bakoitzari aurre eginez.

Horren ondorioz, auto-ikaskuntza eta garapen pertsonala lortzen da.

Prozesuan eragile guztiak komunitate baten partaide sentitzen dira, horren bidez ere ikasten dute, hau da, guztiak guztiengandik zerbait ikasi ahal dutela sentitzen dute.

Hezitzaile batek egin ditzakeen galderak:

1. Zeintzuk dira metodologia hezkidetzailaren ildoak?


Erabiltzen den metodologiaren arabera neska eta mutilen arteko parte hartze desorekatua bultzatu ahal da, nahi barik edo nahita.

Gelan edo ikastetxeetan zerbait egiteko dinamikak eta teknikak aukeratzen direnean parekidetasun ikuspegia txertatu behar da.

Esperientziak dionez, klaseetan parte hartzeko dinamika talde handietan egiten bada beti, neskak gehiago inhibitzen dira.

Parte hartzen dutenean oso ziur sentitu behar dira. Mutilen aldetik isekak, barreak edo kasurik ez egitea arrunta da.

Hori dela eta, neskak hainbat jardueretan ez dira seguru sentitzen.



Metodologiari esker, neskentzako jarduera seguruak lor daitezke.

Metodologia mota honetan, ekintzak parte hartzaileak dira, hau da, guzti guztiek parte hartzeko aukera berdina eduki behar dute; ekintzak lankidetzan oinarrituta daude, nor bere burua ezagutzeko, estimatzeko eta arautzeko ahalbideragarriak izaten dira.

Metodologiari esker jarduerak arautzen ditugu eta lortu nahi duguna bermatzeko bidea da ere.

Rol banaketak, nesken eskubideak eta mutilen betebeharrak orekatzeko moderatzaile funtzioa betetzen du.

3. Zein irizpidetatik abiatzen da?

⇒ Errealitate zehatzera egokitutako prestakuntza-rekin bat dator.

⇒ Gure kasuan, errealitatea aldatu nahi dugu eta geletan ematen den nesken bazterketa gaindu nahi da.

Metodologia honek neskek protagonistatzat hartu behar ditu.

⇒ Partaideen egunerokotasunetik, praktikatik, esperientziatik abiatzen da.

Neskek beraien mundua gelako jardueretan integraturik ikusi behar dute.

⇒ Taldean egiten da, elkarriketa, elkarlana, talde lanerako jarrerak bultzatuz.

Nesken estiloak, interesak, beharrak, arazoak, nahiak, ... taldean plazaratzeko, sentitzeko eta tratatzeko aukera izan behar dute.

⇒ Asanbladan, talde txikitan eta banaka, jardueraren²⁰ arabera, antolatzen ditugu partaideak.

Neskek ikasi behar dute hiru mota horietan gustura sentitzen, baita mutilek ere.


Guk modua bilatu behar dugu.

⇒ Prozesu jarraia da, pausoz pauso eman beharrekoa eta sistematikoa; pertsona bakoitzaren eta taldearen jarraipena egiten da.


20: Ikus "Ikastetxearen antolaketa" atala

- ⇒ Ez dira ezagutzak ezartzen edo transmititzen, ideiak proposatzen dira, zentzu kritikoa eta ezagupen indibidual eta kolektiboaren erakuntza askea eraginez.
- ⇒ Lan mota honek zera behar du: alde batetik, lan taldeak osatzea, erantzukizun giroa, pentsamendu kritikoa eta komunikazioa; bestetik, hezitzailearen papera laguntzailearena izatea, ez zuzendariarena, autokontrola bultzatzea laguntzen duena.

Honetarako, nesken parte hartzea aldeztu aurretik prestatu eta bultzatu behar da.



4. Non islatzen da metodologia?



Edukiak garatu ahal izateko burutzen duguna

Era askotakoak izan daitezke eta, monotoniarik ez izateko, partaidetza aktiboa ahalbidetu behar dute.

Programatutako helburuak lortzera bideratuta daude. Jardueretan helburu eta eduki esplizituen bidez, nesken jakin-mina, beren buruarekiko eta inguruarekiko, bultzatu behar dugu.

Partaideen eta eginkizunaren ezaugarriei moldatuz, eta partaideen interesak eta beharrak landuz

Ikertuz, bere baitan bilatuz (emozioak, espektatibak, eskemak, arauak, baloreak,...) eta parte hartzen duten taldearekin eta hezkuntza prozesuarekin konpromisoak hartuz.

5. Zein ondorio ditu metodologia hezkidetzailleak?

- ⇒ *Parekidetasuna* bultzatzen du.
- ⇒ Ikaskuntza motibatua da.
- ⇒ Behaketa, hausnarketa eta esperimentazioaren bidez barneratzen da. Neska eta mutilen estereotipoekin bat ez datozen beste rol batzuk esperimentatu behar dituzenez, egoera berriak bizitzeko aukera eman behar diegu.
- ⇒ Irakaskuntzaren *hezkuntza*, bere aspektu *integralean*, ahalbidetzen du.
- ⇒ Gaitasun intelektual eta eskuzkoak garatzen dituzte neskek zein mutilak.
- ⇒ Talde ekintzak egitean, jendarteratzea bultzatzen du.

6. Zilegia da, hainbat jarduera burutzeko, sexua dela eta bereiztea?

Bai, estrategia moduan neskak eta mutilak talde bereizietan banatzea egokia izaten da.

Askotan, banandurik askoz libreago sentitzen direlako nahi dutena adierazteko, beren *genero rola* bete behar ez dutelako edota taldekideekin identifikazioa eta konfiantza arinago lortzen dutelako.

Hala eta guztiz ere, hori egiteko hezitzaileen dinamizazioa oso garrantzitsua da, neskekiko elkarrekintza zein mutilekiko elkarrekintza alde aurretik prestatu behar da, helburuak ondo zehaztuz.

Izan ere, hezitzaile bat baino gehiagok parte hartu behar du, bi talde batera dinamizatu ahal izateko.



1. momentua



2. momentua



3. momentua

7. Zein teknika erabili daitezke eta zer lortu behar dute?

⇒ Teknikak:

- Eztabaida zuzendua
- Kasuen ikerketa
- Testu edo tresnen ikerketa
- Behaketa zuzena
- Lan autonomoa (lan indibidualarekin konparatuta ezberdina da, hau irakasgunean egiten delako)
- Jolasak
- Talde dinamikaren edozein teknika


...

⇒ Lortu beharrekoa:

- Komunikazioa
- Adierazpen pertsonala
- Errealitatearen kontzientzia kritikoa hartzea
- Elkarrizketa
- Entzutea
- Irribarrea, umorea eta keinu positiboa
- Arazoen konponketa positiboa
- Aurkikuntzan laguntza

...

8.Zelan hasi metodologia mota hau aplikatzen?



9. Metodologia hezkidetzalea martxan jartzeko jarraibide lagungarriak:

⇒ Gelan garrantzitsua da prestakuntza arloan egingo denak helburu bat duela ikustaraztea.

Horregatik ahal den neurrian, prestakuntzaren edukiak partaideen behar eta iradokizunetatik etorri behar dira eta horrela adierazi.

⇒ Gelan, errepikapenak, eztabaidatzea edo argitzea dena aldi berean egitea ekidin behar da.

Neskek hitz egiten dutenean ezin da onartu, besteen partetik despistaturik egotea, beraien artean hitz egitea, bromak egitea, ... Eta neska baten iritzia beste pertsona batek errepikatzen badu, gogoratu eta goraipatu aurreko neskarena izan dela, biak baloratuz.

⇒ Garrantzitsua da taldearen erabakiak eta ondorioak ondo jasota geratzea, batez ere, neskena. Zergatik?, neskek errefortzu positiboak jasotzearren.

⇒ Gaiak ezagunak izan behar dira hezitzaileentzat, eta taldeak garatu, ikertu ditzan eskaini behar dira.

⇒ Galderak egin eta taldea lagundu galderak egin ditzaten, batik bat neskei, baina gustura eta eroso sentitzen direla ziurtatuz.

⇒ Partaideak zereginean kokatzeko, gunea eta giroa bilatu beharko da.

- ⇒ Saioetako oharrak jaso, zeintzuk izan diren interesgarrienak, sortutako arazoak, lanean harremanak...
- ⇒ Neska eta mutikoen arteko *Aukera Berdintasunaren*²¹ oinarriak txertatu programazioan (inplizitua eta esplizitua).

Partaideengan auto-ebaluaketa bultzatzea egokia da, nork bere buruaren ezagutzaz kontzientzia lortzeko.

Metodologia ez sexista baloratzeko adibide bat

Ondorengo fitxaren bidez zein nolako metodologia erabiltzen ari garen konprobatu ahal dugu. Horretarako, saio baten behaketa burutzea proposatzen dugu:

21: Ikus glosategia

METODOLOGIA

2. taula: Metodologiari buruzko behaketa fitxa

<i>Metodologia</i> hezikidetzalilea	<i>ezer ez</i>	<i>gutxi</i>	<i>nahiko</i>	<i>asko</i>
Talde lana bultzatu dut				
Taldean nesken partaidetza lagundu dut				
Sormena bultzatu dut				
Banakako lana eta talde hausnarketarako bideak zabaltu ditut				
Badakit zenbat neskei hitz egin dledan				
Talde lanerako, neskek protagonismoa izateko arauak jarri ditut				
Aktiboki entzun diet neskei eta mutiliei				
Arazoen konponketan neskek zein mutiliek parte hartu dute				
Neskek eroso eta ziur daude, hitz egiten dute				
Nesken taldean guztiak parte hartu dute				
Mutiliek entzuten jakin dute				

Metodologia sexista gainditzeko bitartekoak (erreferentzi bibliografikoak, web guneak, aholkulariak, esperientziak, material didaktikoa,...):

⇒ Acuña, Sara eta lankideak. (1995). *Coeducación y tiempo libre*. Madril:Popular.

⇒ Colectivo Adarra; Ziarsolo, Zuriñe eta lankideak. (1995). *Haur jolasa hezkidetzan (3-8 urte)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

⇒ Urtxintxa Eskola. (2000). *Gazteentzako aukera berdintasuna hezkuntza ez formalean*. Bilbo: Urtxintxa Eskola



Definizioa:

Taldea eta ikastetxeko dinamika kudeatzeko beharrezko neurriak. Bertan funtzioak, zereginak, erantzukizunak eta arauak kokatzen dira.

Hezitzaile batek egin ditzakeen galderak eta erantzunak:

1. Ikastetxeetan hainbat arau eta protokolo 'araututa' datoz, hezitzaileek zein partaideek ezin dute ezer aldatu, zer egin hori baztertzailea denean?

Araututa datoz gauza batzuk, bai, baina ez hainbeste.

Nahiko orokorrak izaten dira eta kasu askotan interpretazioen arabera gauza ezberdinak egin daitezke.

Horregatik, oso garrantzitsua da guztion partaidetza bultzatzea dauden organoetan eraginkortasuna izateko eta beharrezkoak diren bestelako parte-hartze guneak sortzeko.

Parte-hartze bultzatze hau benetan demokratikoa izan dadin, emakumeen zein gizonen parte-hartzea ziurtatu behar dugu.

Kontuan izanik gatazken arrazoi nagusienetarikoa izaten dela antolakuntza egokia ez izatea, oso garrantzitsua da arauak aproposak izatea.

Edozein araudi aztertzeko irizpide hauek lagungarriak izan daitezke:

⇒ Aritzeko jarraibideak izatea.

Adibidez, askotan arauak formulatuak dauden moduak esaten digu zer dagoen debekatuta, baina ez du esaten nola jokatu behar dugun.

protokoloen interpretazioa
parekidetasunean
oinarrituta



parte-hartze
demokratikoa



emakumeen parte-
hartzearen bermea

Arau bezala, egokiagoa da “gela eta bertan dagoena garbi mantendu behar dugu” zehaztea, “mahaiak ezin dira margotu”, edo “ezin da zaborra lurrera bota” baino.

⇒ Adostasuna izatea abiapuntua.

Hobe da ados gauden gutxitik hastea, nahiz eta ez izan gehien gustatuko litzazigukeena, arau onena izan daitekeena inosatzea baino.

⇒ Eguneroko ekintzetarako lagungarria izatea.

Hau da, araua bera oztopo ez bihurtzea.

⇒ Norberaren eta taldearen poztasun giroan laguntzen dute.

⇒ Ikasteko eta elkarlanean aritzeko gogoia pizten dute.

Ez dugu ahaztu behar umeek edo gazteek ikasi behar dutela, eskolan zein aisialdian, kasu.

⇒ Neskek, zein mutilek dituzten beharretarako lagungarriak.


Adibidez, mutilek eta neskek patioa erabiltzeko aukera berdina ez badute, irtenbide bat bilatzeko arau lagungarriak behar ditugu.

Gehienetan mutilek leku handiagoa betetzen dute, beraz, arauak hau bermatu behar du: mutilek espazioa partekatzen ikastea eta neskek espazioa okupatzen eta defendatzen ikastea.

Eta arauen formulazioak bi bide horiek hartu beharko lituzke.

“Patioaren erabilerarako arauak kontuan izatea: txandak errespetatzea eta erabiltzeko aukera dagoenean erabiltzea”.

Noski, arauen bi alde horiek jorrazteko trebezia ezberdinak landu beharko ditugu eta, kasu askotan, mutilek beharko dituzte trebezia mota batzuk eta neskek beste batzuk.



2. *Zergatik ez daude emakumeak zuzendaritzetan?*

Emakumeak egon badaude, baina egia da hezkuntza lanean ari diren proportzio berean ez daudela. Arrazoi asko egon daitezke hau horrela izateko:

- ⇒ Horrelako karguak eta lanak ez dira beti berdin baloratzen emakume edo gizonen kasuan. Emakumeek kritika gehiago jasotzen dituzte.
- ⇒ Etxeko ardurak, familiako ardurekin bateragarritasuna, ordutegiak direla eta, askotan emakumeentzako bateraezina da.
- ⇒ Gizonezkoek prestutasun handiagoa izaten dute.
- ⇒ Gizonak egonda, emakumeok askotan dugun joera karguak beraien eskuetan uztea da.

3. *Ikuspegi honetatik taldea zelan bana daiteke eta zertarako?*

Ikaste prozesuak eskatzen du bakarka, talde txikietan zein handietan lan egitea, protagonismoa eta elkarlana ahalbidetuz.

Aldi berean, gelako giza baliabideak eta materialak optimizatzen dira.

Bakarkako lana

Hausnarketarako eta barneratu nahi dena sendotzeko ezinbestekoa da bakarka lan egitea.

Talde lana ezin da ondo garatu aurretik ez badago bakarkako lanik eta askotan ere nor bere burua estimatzeko eta gustura sentitzeko oinarritzakoa da.

Bakarrik lan egitea erraztuko duen gune pertsonala topatu behar dugu.

Beraz, hausnarketarako, barneraketarako eta isolamendurako mahaia era egokian jarrita partaideak bilatuko du bere tokia.

Ikastea norberak egin behar duen zerbait da eta inork ezin du beste batena egin, bakoitzak bere gunea behar du.

Taldeakako lana

Ikasten duguna konpartitzeko era egokiena da talde lana.

Kontzeptuak argitzen ditu, protagonismoa garatzen du eta erantzukizuna indartzen du.

Bestalde, talde lanean bertan bakoitzaren ideiak, sentimenduak eta emozioak daudenez komunikazio arauetan entrenamendua beharrezkoa da, hau da, entzutea, parte-hartzea, sentimenduak ezagutzea, hizkuntza egokia erabiltzea (hezkidetzaila) ...

Talde lanak ere bere antolamendua behar du. Eginbeharrak eta rolak dagozkien arauekin banatu behar dira, aurretik entrenatutako estrategiak erabiliz lankidetzarako komunikazioa egon dadin.

Taldeakide kopurua, beraien arteko hartu-emanen eta lanaren helburuaren arabera erabakiko da.

Beraz, jardueraren arabera bi, hiru edo lau pertsonarekin osa ditzakegu taldeak.

Talde lanetan kontuan izango ditugu honelako aspektuak:

- ⇒ Rolak eta ardurak txandakatzea
- ⇒ Guztien iritzia kontuan izatea
- ⇒ Gaien arabera eta taldeen arabera taldekatze irizpideak ezberdinak izan daitezke: zoria, neska eta mutilak nahastuta, bereizita, txandaka, beraien nahi duten moduan....

⇒ Kargu bakoitzaren zereginak eta eskubideak ondo definituta izatea

Taldearen rolak:

Taldeka aritzean, lana erraztuko duen egitura izan behar dugu.

Ardurak eta lana banatu behar dira. Lau pertsona badira taldean, honako hauek izan daitezke adosteko eginbeharrak eta ardurak:

- Koordinatzailea
- Bozeramailea eta behatzailea
- Idazkaria
- Materialaz arduratuko dena

IKASTETXEAREN ANTOLAKETA

Asanblada

Komunean jartzea: Taldeka egiten diren lan guztiak komunean jarri behar dira.

Egiten dena gero besteekin konpartitzeko dela jakiteak motibazioa sortzen du eta taldean lana egitearen baliagarritasuna garbi ikusten da.

Taldean lan egiteko entrenamendua txikia izan denean, komunean edo denon aurrean jartzea nork bere burua kontrolatzeko eta zailtasunak dituzten taldeei laguntzeko balio du.

Besteek komunikazio eta negoziazio arazoak nola konpondu dituzten ikusita, ikasi eta konpon daitezke norberak eta bere taldeak dituztenak.

Komunean jartzeak behar duena:

- ⇒ Aurretik taldean egindakoa eta komunean jartzen dena garbi izatea.
- ⇒ Hitza ematen jakitea.
- ⇒ Hitza eskatzen jakitea.
- ⇒ Nork bere barrutik hitz egitea eta ez beste batzuen ahotik.
- ⇒ Esandakoa laburtzen jakitea.
- ⇒ Akta egitea.
- ⇒ Konpromisoa idaztea.
- ⇒ Behatzailea egotea.

Komunikazio arauak betetzen ez badira eta aurretik lantzen ez badira, asanbladak boterekeria eta bazterkeriarako bidea izan daitezke.

	<i>Bakarkako lana</i>	<i>Taldeko lana</i>	<i>Asanblada</i>
<i>Zeregina</i>	-hausnartu -barneratu	-konpartitu	-komunean jarri
<i>Beharrezkoa</i>	-gune pertsonala	-komunikazio arauak -antolamendua: rolen banaketa	-komunikazio arauak -sintesia -rolen banaketa
<i>Emaitza</i>	-norkbere burua estimatzea -gustura sentitzea	-protagonismoa -erantzukizuna	-motibazioa -negoziazioan trebatzea

4. Zer da antolakuntza demokratikoa?

AHAL JAKIN NAHI

Karguen eta arduren banaketa, txandetan oinarrituta, hau da, noizbait pertsona guztiek ardurak izatea (ahal); horretarako ezinbestekoa da ardura horiek betetzen irakastea (jakin); eta, emakumeen presentziaren eta ekarpenen garrantzia argitzea (nahi). Zelan?

- ⇒ Ikastetxeak dituen arauak guztion artean adosteko parte-hartze prozesua martxan jarritz.
- ⇒ Guztion parte-hartzea errazteko bideak zabalduz.
- ⇒ Emakumeak prestatuz.

⇒ Emakumeei etxeko zaintzaren kargak kenduz.

⇒ Emakumeak motibatuz.

Antolaketa ez sexistak arautzeko aholkuak:

Antolakuntzak parekidetasuna berma dezan besteen artean honako puntuak kontuan izatea garrantzitsua da:

- ⇒ Eskola Kontseiluan eta erabakiak hartzen diren guneetan emakume eta gizonen kopurua proportzionala izatea.
- ⇒ Gela jardueretan nesken zein mutilen parte-hartzea bermatzea.
- ⇒ Gurasoen bileretan aita eta amen presentzia eskatzea.
- ⇒ Emakumeen parte-hartzea bermatzeko neurriak hartzea: ume-zaintza, ordutegiak...
- ⇒ Eskolako jarduera ezberdinetan (eskola hornidura, ikasgelako garbitasuna, ordena, taldeko harreman positiboak sortzea, kirol-jardueretan, festetan, kurtsoen eta eskola kontseiluaren ordezkartzetan, bidaiak...) neskek eta mutilek parte hartzen dutela kontuan izanda, desoreka balego, neurriak jarri partaidetza parekidea izateko.

IKASTETXEAREN ANTOLAKETA

3. taula: Eskola-antolamendua aztertzeko taula

Familiak	Ikasleak/partaideak	Irakasleak/hezitzaileak	zenbat
		Emakumezko irakasleen kopurua	
		Gizonezko hezitzaileen kopurua	
		Ordezkarien portzentajea Eskola Kontseiluan (emakumeak/gizonak)	
		Ordezkarien portzentajea zuzendaritza (emakumeak/gizonak)	
		Ordezkarien portzentajea tutoretzan	
		Nesken kopurua	
		Mutilen kopurua	
		Ordezkarien portzentajea kurtsuan (neskak/mutilak)	
		Ordezkarien portzentajea Eskola Kontseiluan (neskak/mutilak)	
		Amen kopurua	
		Aiten kopurua	
		Partaideen kopurua Elkartean (emakumeak/gizonak)	
		Ordezkarien portzentajea GE zuzendaritzan (emakumeak/gizonak)	
		Ordezkarien portzentajea Eskola Kontseiluan (emakumeak/gizonak)	
		Ikastetxeak antolatzen dituen bilertan (emakumeak/gizonak)	

Ondorioak:

Sexuen arabera, nortzuk parte hartzen dute gehien? Gutxien?

- ⇒ Zein esparrutan parte hartzen dute gehien emakumeek?
- ⇒ Zein esparrutan parte hartzen dute gutxien emakumeek?
- ⇒ Zer planteatuko da Eskola Kontseiluan parekidetasuna lortzeko?
- ⇒ Eskolako Kontseiluan “Berdintasunerako arduraduna” izendatuta dago?²²

Antolaketa sexistak gainditzeko bitartekoak (erreferentzia bibliografikoak, web guneak, aholkulariak, esperientziak, material didaktikoa,...):

- ⇒ Arenas, Gloria eta lankideak. (2000). *El harén pedagógico: perspectiva de género en la organización escolar*. Bartzelona: Graó.

22: Ikusi: EHAA - 2007ko otsailak 6, asteartea 26 zk. Eusko Jaurlaritzaren 770 aginduak zera hau esaten du: 2007ko urtarrilaren 31koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri ikastetxeetan ordezkari-organoren goren-tako kide batzuk, egokitzen direnak, aukeratzeko hauteskunde-prozesua zabaltzen da. Bere 7. artikuluan agintzen da: Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak, eratu ondoren, pertsona bat izendatuko du, gizonen emakumeen arteko benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko hezkuntza-neurriak bultzatu ditzan.



Definizioa:

Heziketa jardueran beharrezkoa den bitarteko fisiko oro: testu liburuak, ipuinak, pelikulak, dokumentalak, musika kanta, dekorazioa, ordenagailuak, laborategiko tresnak, jostailuak, irakurgaiak, heziketa fisikorako tresnak.

Hezitzaile batek egin ditzakeen galderak:

1. *Materiala sexista izan daiteke?*

Bai, erabiltzen dugun materialean balore sexistak eta eduki sexistak²³ agerian zein zeharka egon daitezke.

Agerian, mutilen protagonismoa eta balorazioa neskena baino handiagoa denean, eta zeharka, curriculum ezkutuan, hau da, materialaren erabileraren ondorioz, nesken kontrako jokaerak burutzen direnean.

Adibidez, gimnasia eskoletan baloia baldin bada tresna bakarra, seguru aski, mutilek elementu ezagun eta propiotzat hartuko dute.

23:Ikus:"Edukiak" atala

2. Noiz da materiala hezkidetzaila?

- ⇒ Testuetan eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua denean (kopuruan eta balorazioan)
- ⇒ Etxean erabiltzen diren tresnak eta egiten diren jarduerak eredu gisa agertzen direnean.
- ⇒ Pertsonaien protagonismoaren kokapenean bereizketa sexistarik ez dagoenean, hau da, rol tradizionalak errepikatzen ez direnean.
- ⇒ Pertsonaien jardueretan bereizketa sexistarik ez dagoenean.
- ⇒ Emakumeak zein gizonak espazio publikoetan eta pribatuetan agertzen direnean.

- ⇒ Hizkuntzaren erabilera sexista ez denean.
- ⇒ Gizonezkoek egiten dituzten ekintzak, zein emakumezkoek egiten dituztenak banaketa tradizionalaren araberakoak ez direnean, eta balio ezberdina ez dutenean.
- ⇒ Erabiltzen diren ipuinetan, pelikuletan, kantetan, eta abarretan, erabiltzen diren ereduak estereotipo sexistetatik kanpo daudenean.

3. *Zelan aztertu materiala sexista den ala ez jakiteko?*


- ⇒ Gaurko testu liburuek dituzten ereduak aztertuz, emakumeen presentziari eta irudiei erreparatuz.
- ⇒ Garrantzia eta balorea zeri ematen zaion eta hizkuntzaren erabilera ikertuz.
- ⇒ Erabiltzen diren ipuinek, pelikulek, kantek, eta abarrek, zer nolako ereduak zabaltzen dituzten aztertuz.

4. *Eta dugun material sexista denean, zer egin daiteke?*

- ⇒ Hezitzaileak, eskolan garatu baino lehen, erabiliko duen materialaren azterketa egingo du, galdera hauei erantzuna emanez: emakumeak eta beren ekarpenak protagonistak dira?, zein balorazio ematen zaie?; zelan jorratuko dut gelan?, parekidetasuna bermatzen dut?
- ⇒ Behin hori eginda, eskola-ordurako lan gidoia prestatuko du.
- ⇒ Azterketa egin ondoren, honekin batera aldatetako egiteko proposatu ahal zaie, ariketa moduan garatuz. Partaideei hausnarketa egiten lagunduko die eta parekidetasuna sustatzen duen zerbait berria sortuko dute, edo osatu, edo hobetu, ...

⇒ Partaideek erabiltzen dituzten aldizkariak, komikiak, ipuinak, dokumentalak, jostailuak, teknologia berriekin loturiko tresnak, eta abarrak azter daitezke.

Horretarako, partaideekin batera, hizkuntza, edukiak, espazioa eta denboraren erabilera, transmititzen diren baloreak eta betetzen diren rolak aztertuko dira.



MATERIALA

5. *Materialaren erabilera egokia egiteko zenbait aholku:*

- ⇒ Ikerketa berriak lortu.
- ⇒ Materiala erabili baino lehen aztertu, eta sexista bada, aldatu
- ⇒ Materiala osatu, osagarriak izan daitezkeen testuak erabili
- ⇒ Emakumeen ikusezintasuna plazaratu, aztertu, baloratu...
- ⇒ Patriarkatuaren jakintzaren paradigmak, ideologia... agerian utzi.

- ⇒ Eztabaidarako erabili. Komeni denean, beti ez da posible eta.
- ⇒ Askotan, emakumeak agertzen direnean, aipamen deskriptiboak baino ez dira; baina, urrats bat da.
- ⇒ Emakumeak zientziaren eta jakintzaren subjektua eta objektua izatea da helburua.
- ⇒ Euskal Herrian emakumeak gure kulturaren zutabeak izan garela agerrarazi.
- ⇒ Egoeretan, aldatu rola/pertsonaiak/irudiak... ea egoera berria egokia den.

Materialari buruzko hausnarketa egiteko adibide bat:

- ⇒ Erabiltzen dudana materiala (paperean, interneten-eta, ikus-entzunezkoetan...) eta partaideekin lantzen dudana (testuliburuak, apunteak...) egokiak dira? Sexistak dira?
- ⇒ Emakumeen ikusezintasuna da nagusi?
- ⇒ Nire jardueran, markatzen ditudan helburuak, harremanak, jarrerak, baloreak, jokabide zehatzak... sexistak al dira? Zer prestatuko dut hau eskolan konprobatzeko?
- ⇒ "Emakumea" aldagai bezala txertatu dut? Zein eratan?
- ⇒ Edukia eta forma parekidea da?, hau da, diskurtsoa eta praktika?

⇒ Emakumeak -subjektu eta objektu gisa- eta beren ekarpena modu egokian baloratuta daude?

Testu liburua:

⇒ Emakumeen ekarpenak islatuta agertzen dira? Horrela ez bada informazioa bilatu edukiak osatzeko.

Bestela dinamika hau klasean bertan planteatu daiteke, partaideek irakurketa egitea eta beraiek informazioa bilatzea liburuan agertzen dena osatzen joateko.

Irudiak:

⇒ Zenbat aldiz agertzen dira neskak?

⇒ Zenbat aldiz mutilak?.

MATERIALA

⇒ Inguruan ditugun irudietan neska eta mutilen kopuru orekatua lortu behar dugu. Gainera betiko jarduera estereotipuekin apurtzen duten neska eta mutilak islatu behar dira.

Ikus-entzunezkoak :

⇒ Zenbat pelikuletan dira protagonistak neskak?

⇒ Zein paper dute? Zer transmititzen dute?

Ordenagailuak:

⇒ Desberdintasunik ikusten dugu erabilpenean?

⇒ Nortzuk sentitzen dira erosoago edo nortzuk erabiltzen dute gehiago?

Irudietan:

⇒ Agertzen diren pertsonaia femenino eta maskulinoak parekidetasunera egokitu.

⇒ Pertsonaia horiek leku, rol eta jarduera desberdinetan jarri; genero estereotipoen araberakoak izan ez daitezen saiatuz.

Adibidez, pertsonaia femeninoak ez jarri soilik leku txikietan, etxeko ekintzekin loturik, ...

⇒ Pertsonaia horiei ematen zaizkien ezaugarriak estereotipatuak ez izatea zaindu.

Adibidez, neska zein mutileri honako ezaugarriak lotu: dinamismoa, sentiberatasuna, lasaitasuna, ausardia, ...

⇒ Emakume eta gizonak dituzten lanbideak ez datozela arau sexistetatik erakutsi.

Adibidez, emakumeak zein gizonak kopuru berdinean horrelako lanbideetan erakutsi: hezitzaile, idazkari, erizain, mediku, nagusi, dendari, garbitzaile, ...

⇒ Neska eta mutilen interesak ager daitezela. Adibidez, aisialdian nesken jolasak irakatsi.

⇒ Generoaren araberako baloreen hierarkizaziorik erakusten ez duten marrakiazki erabili.

⇒ Emakumearen eta gizonaren gorputza diskriminazio negatiborik agertu gabe aurkeztu.

Gorputza, neskentzako zein mutilentzako plazer eta zorientasunerako tresna izan daitekeela erakutsi.

⇒ Ezarritako edertasun ereduak gainditu eta pertsonak berezko edertasuna duela erakutsi irudien bidez.

Testuetan:

- ⇒ Neskak protagonistak izan diren arlo eta esparruen adibideak aipatu.
- ⇒ Munduan eta historian zehar, emakumeek garatu dutena aipatu: etxeko esparruan, politikan, irakaskuntzan, arlo sozio-kulturalean, zientzian, literaturan, ...
- ⇒ Erabiltzen diren izenlagunak zaindu, hizkera ez sexista²⁴ erabiliz.
- ⇒ Bibliografian emakumeek idatzitako liburuak sartu, baita izen-abizen osoak jarri, emakumeak direla ikustarazteko.

24: Ikus "hizkuntza" atala

Material sexistak gainditzeko bitartekoak (erreferentzi bibliografikoak, web guneak, aholkulariak, esperientziak, material didaktikoa,...):

- ⇒ Emakunde. (1992). *Testu liburuen bidez zabaltzen al ditugu sexu-baloreak?*. Gasteiz: Emakunde.
 - ⇒ Medrano, Bea (koord.) (2006). *Ipuin ez sexistak*. Bizkaiko Urtxintxa Eskola: Bilbo.
 - ⇒ www.mtas.es/mujer/publicaciones/catalogo/cuadernos_educación.htm
12. zbkia: La actividad física en la cocina (doan), 13. zbkia: *La química de la cocina* (doan), 15. zbkia: *El misterio del chocolate en la nevera* (doan), 16. zbkia: *Los saberes de cada día* (doan).
- ⇒ Zaitegi de Miguel, Neli eta Urruzola, M^a Jose. (1993). *Nola landu eta aukeratu hezkidetzako ikasmaterialak*. Gasteiz: Emakunde.

Definizioa:

Ikastetxean, pertsonen artean gertatzen diren elkarrekintzak eta hauen artean dagoen komunikazioa dira.

Harremanak lantzeak honako helburu hau du: hezkuntza komunitatekide guztien artean (partaideak, hezitzaileak, familiak, hezitzaileak ez diren bestelako langileak) nork bere buruarekiko eta gainontzekoenganako errespetuan oinarritutako bizikidetzaz lortzea.

Hezitzaile batek egin ditzakeen galderak eta erantzunak:

1. Nolakoak izan behar dute harremanek? Zein ezaugarri bete behar dute?

⇒ Berdintasuna eta parekidetasuna izango dira oinarria.


Hau da, elkarrekiko errespetua, nork bere autoritatea eta protagonismoa izatea.

⇒ Nork bere identitatea garatzeko lagungarriak dira.

Honetarako erantzukizuna, protagonismoa, konpromisoa eta nork bere burua baloratzea ezinbestekoa izanik.

- ⇒ Elkartasun balioen eta hierarkiarik gabekoen bultzatzaileak dira.
- ⇒ Pertsonaren eremu guztien (identitatea, gizartea, adimena, gorputza, emozioak) garapenerako lagungarriak dira.

Pertsonaren eta taldearen autonomiarako lagungarriak dira.



HARREMANAK

2. Zein estrategiek laguntzen dute horrelako harremanak bultzatzen?

- ⇒ Jarrerren edukia curriculumaren ardatza izatea.
- ⇒ Denon partaidetza, neskena zein mutilena, bermatzeko bideak izatea
- ⇒ Nork bere burua arautzeko hezteak.
- ⇒ Gune eta une bereziak izatea (tutoretza, alternatiba, etika...) partaideak bizikidetzarako ezinbestekoak diren trebezietan trebatu eta gero bestelako eremuetan praktikan jar ditzaten: trebezia emozionalak, sozialak, komunikatiboak, kognitiboak, sintoniakoak....
- ⇒ Komunikaziorako oinarritzko arauak izatea.

HARREMANAK

85

- ⇒ Harremanak arautuko dituzten jarraibideak era demokratikoan osatuak izatea, bai neskek bai mutilak beren garapenerako dituzten beharretan oinarrituak.
- ⇒ Sortzen diren gatazkak era eraikitzailean bideratzea.
- ⇒ Komunikazioa, lankidetzak, lan giroa, protagonismoa... izateko lagungarria izatea gelaren antolamendua (Ikus. Antolakuntza atala).
- ⇒ Gatazkak kudeatzeko, Justiziaren Etikaz gain, Zaintzaren Etika izatea erreferentzia.
- ⇒ Hezkuntza afektibo-sexualari garrantzi berezia ematea curriculumean.
- ⇒ Ikastetxean ematen diren harremanak, jokaerak... positiboak, parekidetasuna islatzen dutenak... agerian jartzea eta hortik abiatuta ikastetxearen identitatea indartzea.

jarrerak

partaidetza

autoarautzea

bizikidetzak


komunikazioa

demokrazia

gatazken
konponketa

zaintzaren etika

3. Zeintzuk dira Zaintzaren Etikaren irizpideak?



⇒ Etika, justizia (nork bere eskubideak bermatzea) baino askoz gehiago da.

Gatazka baten aurrean testuingurua kontuan hartzen du (bestearen ikuspuntua, sentimenduak...) eta ondorioz, irtenbide ezberdinak sortzeko aukera ematen du.

⇒ Erantzukizuna ez da soilik norbere jokoeraz jabetzea besteen eskubideak errespetatuak izateko.

Besteenganako erantzukizuna ere kontuan hartzen da, hau da, beste batzuek

HARREMANAK

sufritzen duten gatazka baten aurrean ezer ez egitea ez litzateke zilegia, etikoa izango.

Banakako ikuspuntuaz gain, erantzukizun soziala ere azpimarratzen du zaintzaren etikak.

⇒ Pertsona banakako izakiaz gain, harreman sarearen partaidea da, mundua harreman sarea da.

Gure kasuan, ikastetxea, gela... harreman sareak dira, pertsonak elkarrekiko lotura dute.

⇒ Ereku publikoan aldarrikatzen diren giza eskubideak pribatuan (pertsonala, etxekoa) ere kontuan izaten ditu.

Elkarrenganako erantzukizuna bultzatzen du kaleko, ikastetxeko, zein etxeko harremanetan.

*4. Zein izango da parekidetasunean oinarritutako harremanak izaten lagunduko digun araudia?*²⁵

Parekidetasunean oinarritutako harremanak bultzatzeko oso garrantzitsua da araudia lantzeko prozesua.

Honek irizpide batzuk bete beharko ditu:

1. Bizikidetzaren autonomoaren markoan mugitzea, hau da, ikastetxean, gelan sortutako arauak, jarraibideak izatea.

Horiek bertan dauden beharretatik abiatuta egon behar dute eta bertakoek (hezitzaileek, partaideek, gurasoek) erabakita, ez kanpotik edo kolektibo batek beste bati inposatuta.

2. Behar diren jarraibideak zehazteko, ikastetxean dauden jarrera positiboak zein negatiboak behatzea ezinbestekoa da.

Positiboa eta negatiboa zer den zehazteko bi irizpide erabiliko ditugu: errespetua eta norbera jarrera horrek gustura sentiaraztea.

Behaketa horretan neskek zein mutilek diotena bereiziko dugu, askotan pertzepzio ezberdina izaten baitute eta ondorioz ondo sentitzeko behar dutena ere ezberdina izaten da.

Zehaztu beharreko arauak edo jarraibideak partaideei zuzenduak badira, haiek izango dira prozesuaren eragileak, hau da, beraiek behatuko dituzte beren jarrerak.

25: Prozesu hau garatzeko materiala. GASTEIZKO HEZKIDETZA MINTEGIA. Gure arteko harremanak. <http://www.proarabatic.org/Tutoretza/Gure%20arteko%20harremanak/index.htm>

Behatutakoa era zehatzean adierazi behar da, gero aztertu ahal izateko.

Adibidez, ondo tratatuak edo gaizki tratatuak izan garela esateak ez digu ezer esaten, zehaztu behar da zein den ondo edo gaizki tratatua sentiarazten gaituen ekintza (gauza politik esatea, irainak, jolas orduan nirekin kontaktzea...)

3. Neskek zein mutilek, behatutako jarrera positiboak eta negatiboak aztertuko dituzte, jarrera horien zergatiak eta ondorioak identifikatuz.

Hau taldeka egin daiteke eta taldekatzea era anitzean egitea komenigarria izaten da: neskek eta mutilak bereizita eta baita talde mistoetan ere.²⁶

4. Zergatiak eta ondorioak identifikatzeak lagunduko digu jarrera positiboak indartzeko eta negatiboak birziklatzeko beharko ditugun jarraibideak aurkitzen.

HARREMANAK

Zergatiekin lotutakoak lagungarriak izango dira nesken zein mutilen autonomia garatzeko eta ondorioekin lotutakoak, berriz, erantzukizuna garatzeko.

Biak dira garrantzitsuak identitatea eta boterea izateko.

5. Zergatiak eta ondorioak identifikatzeak ere garrantzia du hortik aterako ditugulako jarrera negatiboak birziklatzeko partaideek ikasi beharko dituzten trebeziak.

Hemen ere, nesken eta mutilen ikasteko beharrak kasu batzuetan ezberdinak izan daitezke.


	<i>Irizpideak</i>
1	ikastetxean, gelan sortutako arauak, jarraibideak izatea
2	ikastetxean dauden jarrera positiboak zein negatiboak behatzea
3	Neskek zein mutilek, behatutako jarera positiboak eta negatiboak aztertzea, jarrera horien zergatiak eta ondorioak identifikatuz
4	Jarrera positiboak indartzeko eta negatiboak birziklatzeko beharko ditugun jarraibideak zehaztea
5	Nesken eta mutilen ikasteko beharrak identifikatzea

5. Zeintzuk dira Komunikaziorako oinarrizko arauak?²⁷

Hizkuntzak pentsamoldea egituratu eta baldintzatzen du, barne-barneko sentimendu, balore eta desioen adierazpena da.

Komunikaziorako bide gisa, errealitatea irudikatu, kategorizatu eta ulertzeko balio du, eta, aldi berean, baita norberaren zein besteen jokaera erregulatzeko ere.

Autoezagutzarako lehendabiziko pausoa hizkuntzaren erabilpen pertsonal zein sozialaz jabetzea dugu.



27: Pentazitatea eredan oinarriturik

Komunikazioaren erregulazioa (gelan, hitzaldi edo eskola magistral batean zein lan-taldeetan) pertsona bakoitzak duen jarreraren araberakoa izango da.

Pertsonak jarrera irekia eta ikasteko nahia erakusten baldin badu, aurrean dituen pertsonen jakiturian konfiantza osoa baldin badu, nahiz eta bere ideiak entzuten ari denarekin bat ez etorri, jakingo du errespetatuz argumentatzen eta eztabaidatzen, bere iritzia inposatzeko beharrik izan gabe.

**Komunikazio onerako baldintza:
jarrera irekia eta ikasteko nahia**

Komunikazio egokia sortzeko beharrezkoa da gaitasun jakin batzuk garatzea eta halaxe, entzuten ikastea:

- ⇒ beste iritzi batzuk izaten jakin ahal izateko,
- ⇒ gainerako pertsonen gainetik jarri gabe interbentzioak egin ahal izateko,
- ⇒ eta baita ezagutzak trukatu, eta norbera zein taldearen protagonismoa eta botere pertsonala gauzatzea ahalbidetuko duen komunikaziorako armonia eta sintonia-energia sorrarazi ahal izateko ere.

Erabiltzen dugun hizkuntza gure pentsamenduaren adierazpidea da, bai eta gure adimenaren egiturarena ere, hau da, dugun balore-eskalarena eta bere hierarkizazioarena.

Beraz, lankidetzan eta hezkidetzan oinarritutako hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izango da parekidetasun ereduarekiko koherenteak izan nahi baldin badugu.

Hizkuntza kooperatiboa hauxe da guretzat:

Nork bere identitatea baloratzen duen hizkuntza, pertsona, talde eta jarrera batzuk beste batzuekin konparatu gabe

Hizkuntza honek ez du saririk, zigorrik, txantaje emozionalik edo bestelakorik erabiltzen elkarbizitza arautzeko

Lehian oinarritutako hizkuntzak sorrarazten duen indarkeria bazterten saiatzen da, bai eta erruduntasun sentimendua ere, horrela, nork bere agintea berreskuratzen duelarik

HARREMANAK

Hezkidetzaz-hizkuntza erabiltzea hauxe da guretzat:

Pertsona guztiak baloratu eta izendatzen dituen hizkuntza erabiltzea

Beraz, "teorian" pertsona guztiak biltzen dituen maskulinoaren erabilera okerra baztertzeko du.

Erabilera oker horrek estereotipo maskulinoak kutsatutako eraikuntza kontzeptualak eta irudikapen mentalak sorrarazten ditu, eta gizonaren unibertsaltasuna eragiten du gizadiaren epizentro gisa; era horretan, mutilengan makro-identifikazioaren garapena bultzatzen da, eta neskenengan, beriz, azpi-identifikazioaren garapena.

Jokaera honek neskenengan ingurunera moldatzeko zein nork bere burua baloratzeko arazo larriak eragiten ditu.

HARREMANAK

93

Beraz, hizkuntza hezkidetzaillea era egoki batez erabiltzeak ezaugarri hauek erakutsiko ditu:

persona bakoitzaren izena aipatzen du beregana zuzentzerakoan

identitate pertsonalak aitortzen ditu

bi sexu daudela gogoratzen du genero gramatikal egokia erabiltzen baitu.

modu positiboan hitz egiten du, konparaziorik, erasorik gabe eta norgehiagokan aritu gabe.

Komunikazioan funtsezkoa da gaitasun eta trebetasun batzuk izatea erasorik egon ez dadin eta mundu guztia onuradun izan dadin.

Lehenik eta behin, edozein eratako komunikazio-esperientziari ekin aurretik, ezinbestekoa da komunikatzeko irizpideak ondo finkatu eta ezartzea.

Garrantzi handikoa izango da honako hauek errespetatzea:

Entzuten jakitea	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Entzun nahi ez dudana entzuten dudanean, hau da, norbaitek esandakoa neure ideiekin bat ez datorrenean, barruan sortzen zaizkidan emozioez jabetzea. ⇒ Gorputz-jarrera egokia izatea. ⇒ Adimena eta emozioa esaten den horretara irekitzea. ⇒ Hitz egiten ari den pertsonari bihotzez begiratzea
------------------	---

Interbentzioak egiten jakitea	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Argi hitz egitea, ondo ahozkatuta eta esaten ari naizenaz ardura hartuta; neure ideiak adierazteko beharra dudanean, orduantxe bakarrik hitz egitea. ⇒ Esandakoaren arrazoiak konturatzea: besteei gauza berri bat eskaintzeko, argibideak eskatzeko, atentziora emateko, norbait barregarri uzteko, eztabaida monopolizatzeko... ⇒ Beharrezkoa da hiztegi egokia erabiltzea eta taldeak duen denboraz arduratzea.
-------------------------------	--

HARREMANAK

Denboraz eta inbertentzioez
guztio arduratzea

- ↳ Talde-lanak, joko-arauak ezartzea eskatzen du, baita pertsona bakoitzari dagozkion zereginak zeintzuk diren ezagutzera ere.
- ↳ Inork hizlari gisa hitzaldia eman behar duenean, lana azaltzeko behar beste denbora eman behar zaio; entzuten ari diren pertsonak, beraz, zain egoten jakin behar dute, itxaron behar dute iritziak emateko, ez dute gauza bera errepikatuko eta, galdetzekotan, informazio gehiago lortzearen galdetuko dute betiere, ikasteko jarrera positiboa erakutsita eta ez atentzioa ematearren, inor barregarri uztearren, inoren izena zikintzearren...
- ↳ Horrelakoetan, jarrera negatiboa sortzen denean, norberaren emozio barruan sartu eta gertatzen ari denaz konturatzten jakin beharko dugu.

95

Beste pertsonen lekuan jartzen eta norik bere autoritate pertsonala erabiltzen jakitea

- ↳ Askotan, taldeetan egoera deserosoak eta ezatseginak ikusten dira, eta horien ondorioz taldeko harreman onak eta komunikazioa hondatzen dira.
- ↳ Auzi txikiak konpontzeko hausnarketa eta gogoetak egin behar ditugu, eta elkarren artean konpromisoak hartu; horrez gainera, hitz egiten ari den pertsonaren lekuan jartzea eta bera ulertzen jakitea oso lagungarria izaten da horrelako egoera tirabiratsuak bideratzeko eta auzi horietatik zerbait ikasteko.
- ↳ Auziak, eztabaidak, tirabirak, gatazkak.... berez ez dira ez onak ezta txarrak ere; taldeetan izaten diren gertaeretakoz batzuk baino ez dira.
- ↳ Jakin behar da egoera horietatik aldentzen eta gaiak arazoan bitartez ikusten; era horretara errazago aurkituko dugu guztion artean auzia konpontzeko bideren bat.

Harreman ez sexistak izateko/bizitzeko/programatzeko/irakasteko... adibideak:

Araudia lantzeko prozesuan, adibidez, partaideek behatutako jarrera positiboa izan daiteke: *“Lagunak zerbait ulertzen ez duenean, azaltzeak ondo sentiarazten nau”.*

Behar duen lagunari azaltzearen arazoaren galderari honelako erantzuna eman diezaiokete: *“Laguntzen dut berak ere aurreratzea nahi dudalako”.*

Eta horrek zein ondorio duen azaltzeko esaten badiegu: *“Bera ziurrago sentitzen da, aurreratzen du eta nik ere azaltzen hobeto ikasten dut eta eraginkorra sentitzen naiz”* izan daiteke erantzuna.

Beraz, hemendik ondorioztatuko genuke honelako jarraibidea: *ikaskideen artean laguntza izatea.*

Behatutako jarrera negatiboa izan daiteke: “Gaizki sentitzen naiz talde lanetan nire iritzia kontuan hartzen ez denean”

Zergatiak: Pertsona guztiak ez ditugulako berdin baloratzen, talde lanetan beti dago agintzen duen baten bat...

Ondorioak: Iritzia ez ematea, besteak baino gutxiago sentitzea, taldeak gutxiago ikastea....

Jarraibideak: Talde lana egiten dugunean, beste gauza batzuen artean, guztien iritzia idatzita jasotzea.

Eta horien balorazioa egiterakoan, alde positiboak identifikatzea.

Beti egongo da honetaz arduratuko den bat eta ardura hau txandaka beteko da.

Jarraibide hauek landu nahi baditugu arlo guztietan, partaideek hainbat trebeziatan trebatzeko aukera izan behar dute: esate baterako, hizkuntza positiboa erabiltzea, entzumena, beste pertsonengan gauza positiboak identifikatzea, nork bere ideiak eta nahiak era egokian adieraztea (asertibitatea)...

Harreman sexistak gainditzeko bitartekoak (erreferentzi bibliografikoak, web guneak, aholkulariak, esperientziak, material didaktikoa,...):

- ⇒ Altable, Charo. (1991). *Penélope y las trampas del amor*. Madril: Mare Nostrum ediciones.
- ⇒ Altable, Charo. (2000). *Educación sentimental y erótica para adolescentes*. Madril: Miño y Dávila Editores.

- ⇒ Barragán, Fernando. (2006). *Violencia de género y currículo. Un programa educativo que sí promueve nuevas relaciones de género*. Málaga: Aljibe.
- ⇒ Emaisia Elkarte. (2004). *Aisialdian sexismoari aurre egiteko aholku sorta*. Bilbo: Urtxintxa Eskola
- ⇒ Emaisia Elkarte. (2005). *Aisialdian biolentziari aurre egiteko aholku sorta*. Bilbo: Urtxintxa Eskola
- ⇒ Gasteizko Hezkidetz Mintegia. *Elkar ezagutzen dugu*. <http://www.proarabatic.org/Tutoretza/elkar%20ezagutzen%20dugu/index.htm>.
- ⇒ Gasteizko Hezkidetz Mintegia. *Gure arteko harremanak*. <http://www.proarabatic.org/Tutoretza/Gure%20arteko%20harremanak/index.htm>

- ⇒ Gizarte Ongi Izaterako Foru Erakundea. (2001). *Elkarbizitzarako kontratua*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- ⇒ Herreros, Victoria; Irigoien, M^a Jesus; Romero, Teresa; Salas, Begoña; Serrano, Inmaculada. (2005). *Bizitzarako gaitasunak eta balioak. Bizikidetzeta eta tutoretza*. Gasteiz: Eusko Jauriaritza. Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Grupo Pentacidad-
- ⇒ Jourdan, Clara; Tome, Amparo; Montoya, Milagros; Gobeta, Maria; Salguero, José M. (1998). *Educación en relación. Cuadernos de educación no sexista. 6. zkia*. Madril: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Instituto de la Mujer.
- ⇒ LAB. *Maitasuna aztergai*. koadernoak.
- ⇒ LAB. *Maskulinitateak*. koadernoak.
- ⇒ Salas, Begoña; Serrano, Inmaculada; Urruzola, M^a. (2001). *Violencia de género : el maltrato escondido.guía para identificar y superar las causas de la violencia cotidiana*. Iruñea: Iruñeko Udala.
- ⇒ Sastre, Genoveva; Moreno, Montserrat. (2002). *Resolución de conflictos y aprendizaje emocional. Una perspectiva de género*. Bartzelona: Gedisa.
- ⇒ Solsona, Nuria; Tomé, Amparo; Pruna, Subías Judit; De Miguel Tafacla, Xus. (2005). *Aprender a cuidar y a cuidarnos*. Bartzelona: OCTAEDRO.
- ⇒ Urruzola, M^a Jose. (2005). *Neskentzako gida*. Bilbo: Maite Canal.
- ⇒ www.nahiko.es. Emakumeen kontrako tratutxarrak prebenitzeko Emakunderen programa

4. taula: Indarkeria identifikatzeko galde-sorta

GALDERAK	<i>bai</i>	<i>ez</i>
Zure ikastetxean indarkeria kutsurik antzeman duzu? (partaideen artean, hezitzaile-partaideen artean, hezitzaileen artean, materialetan, ingurunean, ...?)		
Ikastetxean norbaitek horren jabetza hartu du?		
Partaideek indarkeriari aurre egiteko ezer egin dute?		
Hezitzaileek indarkeriari aurre egiteko ezer egin dute?		
Hezitzaileen autoestimua egokia izateko ezer egin da?		
Partaideen autoestimua egokia izateko ezer egin da?		
Harreman positiboak antzematen dira?		
Elkartasun-harremanak sustatzen dira? (pertsonakiko, ingumenarekiko, animaliekiko, objektuekiko, ...?)		



Definizioa:

Hizkuntza tresna nagusia da nork bere pentsamendua antolatzeko, errealitatea ulertzeko eta interpretatzeko, jendartearen jakintza eratzeko eta transmititzeko.

Hizkuntza herri batek edota pertsona batek bere burua ezagutu eta ulertzeko zein gainerakoak ezagutarazteko sortzen duen bitartekoa da.

Hizkuntzak eta errealitateak elkar eragiten dute, batak bestea islatzen du eta aldatzen laguntzen du.

Hizkuntza pertsonen arteko elkarrekintzan, idatzizko testuetan, ikastetxeko karteletan, eta abarretan agertzen da.

Hezitzaile batek egin ditzakeen galderak:

1. Zer da hizkuntza sexista?

Komunikazioan emakumeak, emakumeak izateagatik, baztertzen, gutxienesten, iraintzen edo mintzen dituen hizkuntza.

Hizkuntza sexista da estereotipo sexistak transmititzen direnean, generoen irudikapena adierazi eta indartzen denean.

Hizkuntzan jendartearen eta kulturaren ardatzak kokatzen dira.

Kasu honetan generoak duen funtzioa, desberdintasun sexuala markatzea da, beraz, sinbolikoki gure adimenean dauden irudi-estereotipoak horiekin ere lotzen dira.

Adibidez, askotan tonu altua entzuten dugunean, berehala mutil bat irudikatzen dugu, gure kultura androzentrikoa²⁸ delako.



28: Ikus glosategia

HIZKUNTZA

2. Zein ondorio izan dezake hizkuntza sexistak?

Hizkuntzak bi genero daudela islatzen du normalean, bata bestearen gainetik.

Horrek gure pentsamoldeak baldintzatzen ditu.

Neskek komunikazioan baztertuta, mesprezatuta, baliorik gabe agertzen direla ikasten dute, eta horren ondorioz, autoestimua baxuagoa garatzen dute, infraidentitatea sortuz; mutilek, berriz, sobreidentitatea garatzen dute, beti presente eta protagonista baitira.

Ikusten denez, nortasunaren eta identitatearen garapenean izugarritzko eragina du.



sobreidentitatea

infraidentitatea

3. *Euskara sexista da?*

Hizkuntzalarien artean, iritzi desberdinak daude.

Alde batetik, hizkuntza bera sexista izan daitekeela esaten dutenak eta bestetik, hizkuntzaren erabilera sexista dela defendatzen dutenak.

HIZKUNTZA SEXISTA

hizkuntzetan hitz sexistak egon daitezke, adibidez, euskaraz bakarrik gizona koei dagozkienak (gizarte, legegizon, ...) edo hizkuntzak, errealtatearen isla denez, bizi garen kultura androzentrikoaren ezaugarriak izango ditu.

ERABILERA SEXISTA

hizkuntza gehienek, euskara kasu, hitz horiei aurre egiteko hiztegia eta estrategiak dituzte, adibidez, legegizon esan beharrean (emakumeak eta gizonak adierazi nahi ditugunean) legelaria, abokatu...erabili beharko genuke.

Hizkuntza zerbait dinamikoa den heinean, erabilera sexista ez izateko irtenbideak sor ditzakegu.

Argi dagoena da, gaur eta hemen, hizkuntza "neutroa" edo ez markatua erabiltzea ez dela nahikoa. Egun emakumezkoek diskurtsoan esplizituki eta baloratuak agertu behar dute.

Helburua ondorengo hau izango litzateke:

Hizkuntzaren bidez, pertsonen artean sortu daitezkeen diskriminazioak indargabetzeko egitura zuzenak bilatzea eta sustatzea. Gainera, okerrak ekidin behar dira.

4. *Orduan, zergatik esaten da euskara ez dela sexista?*

⇒ Amaia Alvarezen arabera (2004), euskarak ez dauka genero gramatikalik eta horren ondorioz jendeak pentsatzen du ez dela sexista.

Hirugarren pertsona singularra neutroa da (*bera/hura*), beste hizkuntza askotan markatuta egonik.

⇒ Atzizki gehienak neutroak dira (*-gizon, -eme, -andre* kenduta).

⇒ Aditzean genero bereizketa agertzen da hikaren tratamenduan soilik (parekoen arteko binakako komunikazioan sexua gramatika kategoria bihurtzen da: *-n/-k*).

Hala ere, beste modu batzuetan agertzen da genero bereizketa (*giza-, anai-, ema-, -gizon, -eme, -andre*).

⇒ Erdaratik ere eragin handia dauka euskarak, adibidez, maskulino orokortzailea: *aitak, errege katolikoak*; generoa adjektibo eta izenetan: antropologo, boluntario.

⇒ “Genero kutsadura” deitutakoa ere gertatzen da euskaraz; izen neutroak pentsamenduan genero batekin identifikatzen ditugu (*medikua, langilea, politikaria, erizaina, idazkaria, garbitzailea*); generoa morfologikoki ez da ia agertzen euskaraz, asoziazio kultural baten ondorioz gaineratu/ezarri zaio.

Baina ez da lanbideetara mugatzen, gizonezkoek balio generikoa duen edozein esaldi bereganatzen baitute (*gazteek = gizon gazteek*).

⇒ “Genero kutsadura” deitutakoa ere gertatzen da euskaraz; izen neutroak pentsamenduan genero batekin identifikatzen ditugu (*medikua, langilea, politikaria, erizaina, idazkaria, garbitzailea*); generoa morfologikoki ez da ia agertzen euskaraz, asoziazio kultural baten ondorioz gaineratu/ezarri zaio.

Baina ez da lanbideetara mugatzen, gizonezkoek balio generikoa duen edozein esaldi bereganatzen baitute (*gazteek = gizon gazteek*).

AHOLKUA	ADIBIDEA
Orokortzaileak diren hitzak maskulinotzat ez hartu.	<i>gure taldeko umeek oso jarrera ona dute neskekiko.</i>
Adjektibo eta izenetan generoa eta adjektiboa ez markatu.	<i>majo/a, tipa, maja, guapa, tonta, dekana, antropologo, lista...</i>

AHOLKUA	ADIBIDEA
Gizon atzikia duten hitzak ez erabili.	<i>legegizon, itsasgizon, plazagizon, elizgizon</i>
"Genero kutsadura" ekidin, hau da, izen neutroek pentsamenduan genero batekin identifikatzen dutena baztertu	<i>medikua, abokatu, futbolaria, politikaria, erizaina, garbitzailea.</i> Kasu honetan, nahiz eta generoa ez agertu, asoziazio kultural baten ondorioz, lanbide bakoitza sexu bati edo besteari egokitzen zaio.
Itxurazko bikoteak ere alboratu.	<i>gizalege/emalege</i>

AHOLKUA	ADIBIDEA
Parekotasun eza ematen denean, atzikia berdina izanda baina sexua aldatuta, ez erabili. "Eme" eta "andra" erroitik datozen hitzak eta "giza" eta "gizon" erroitik datozenak ez dira parekoak beraz hizkera sexista litzateke.	<i>Gizartea, giza-eskubideak, gizabanakoa, ...</i>
Jauzi semantikoei arreta jarri. Generikotik espezifikora eta espezifikotik generikora pasatzea abisatu barik. Lehenengo esaldi batean gizonak eta emakumeak aipatuak dira, hurrengoan emakumeak beste kategoria batean sartuta agertzen dira.	<i>bikingoak oso indartsuak ziren, beren emazteak atseginak eta eskuzabalak</i>

AHOLKUA	ADIBIDEA
Hitanoa erabiltzeko solaskide bakarra behar da edo genero bakar batek osatzen duen talde bat.	Erabilpen ezegokiak daude, adibidez, jende guztiari zuzendutako mezu hauek: "Erretzeari utz ezaiok", "Aukera ezak hire kirola"
-sa atzikiaren erabilera askotan desegokia izaten da, zubereraz bizirik dagoen arren, hegoaldean "-ren emaztea" adierazteko erabili izan da.	<i>alkatesa, aktorea, jainkosa, ...</i>
Hutsune lexikoak ere egoten dira, hau da, hitz batzuk erro maskulino edo femeninotik sortzen dira eta beste sexuarentzat ez dute baliokiderik	<i>anaitasuna, anaiarte, gizatiar, emaro</i>

AHOLKUA	ADIBIDEA
Sexuaren araberako trataera desberdinek ez egin.	<i>Etxebarria jauna eta Mirentxu, Mitterand eta Margaref...</i>
E m a k u m e e n errealitatea plazaratu.	<i>horrek esan du = neska horrek esan du</i>
Genero estereotipoen erabilera ez indartu	kontuz nori esleitzen zaizkion ondokoak (neskari edo mutilari): <i>lirain, eder, polit, panpox, pertxenta, xarmant, indartsu, sendo, azkar, ialo, trebe.</i>

Hizkuntza ez sexistak asmatzeko adibideak:

- ⇒ “Itzuli” hitz neutroak edo testu abstraktuak.
Emakume edo gizonezkoaren “aurpegia” jarri
- ⇒ Agerrarazi atzean dagoena: “*emakumeak eta gazteak*” = “*emakumeak eta neska-mutil gazteak*”.
- ⇒ Azalarazi hitzen, esamoldeen, erabileren... esangura, zentzua, eta baloratu egokia den.
- ⇒ Aldatu testuen protagonisten genero rola, egoerak... ea zer gertatzen den.
- ⇒ “Emakumea” aldagaia txertatu kasu guztietan, eta emaitzak aztertu.
- ⇒ Aztertu geletan neska eta mutilen parte-hartzea nolakoa den, *berdin hitz egiteko aukera berdina daukate?, berdin entzuten diegu?, nork*

galdetzen du gehiagotan?, nolakoak dira interbentzioak?, nola sentitzen dira jendaurrean hitz egiten?, ...

Aztertu, nesken estiloari buruz dituzun aurreiritziak

Hizkuntza sexista gainditzeko bitartekoak (erreferentzi bibliografikoak, web guneak, aholkulariak, esperientziak, material didaktikoa,...):

- ⇒ Abranches, Graca, Carvalho, Eduarda. (1999). *Lenguaje, poder, educación: el sexo de los B, A Bas*. Lisboa: Ed. Comissao para a Igualdade.
- ⇒ Alario Carmen (Koord). (1995). *Nombra en femenino*. Madril: Instituto de la Mujer.
- ⇒ Alvarez, Amaia .(2004). *Euskara eta diskriminazio sexuala*. In Jakin. 142 zbk.
- ⇒ Alvarez, Amaia. (2004). *Euskara sexista al da?*
- ⇒ Arana, Anuntxi. (1993). "Sexismoa sinbolo eta arketipoetan". *Emakumea: sexua ala generoa*. Bilbo: UEU eta EMAKUNDE (69-78 or.)
- ⇒ Bengoechea, Mercedes. (2003). *Influencia del uso del lenguaje y los estilos comunicativos en la autoestima y la formación de la identidad personal*. www.emakunde.es. Nahiko Proiektua
- ⇒ Ekin Emakumeak Elkarte. (2001). *Hizkuntza sexistaren ikuspegi ezberdinak*. Leitza: Emakume Abertzaleon Topaketa Feministak

- ⇒ Emakunde. (1992). *El lenguaje, instrumento de progreso*. Gasteiz: Emakunde
- ⇒ Emakunde. (1998). *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago: hizkuntzaren erbilera ez-sexistarko propsoamenak*. Gasteiz: Emakunde.
- ⇒ Etxeberria Murua, Pilartxo. (1993). "*lexikoa eta sexismoa*". *Ikerkuntza, Irakaskuntza eta Feminismoa. Sexismoa, lengoaia bide dela. Hizkuntzaren baitako eta kanpoko elementuak*. Donostia eta Gasteiz
- ⇒ Cordeiro, Cristina; Rodriguez, Alicia; Herrero, Amaia; Ruiz, Patricia. (2005). *Estilo liburua*. Bilbo: Euskal Herriko Bilgune Feminista.

- ⇒ González, Sonia. (2002.) *Izena duen orok dauka bere izana. Hizkera sexista ez erabiltzeko protokoloa*. Aukera berdintasun plana. Bilbo: LAB
- ⇒ www.bizkaia.net/ahaldun_nagusia (Guía del Lenguaje)
- ⇒ www.ituna.org (Manual de utilización igualitaria del lenguaje): "Euskara sexista ote?"
- ⇒ www.sustatu.com: "Euskara sexista ote?"

Definizioa:

Irakaste-ikaste prozesuan jarduerak burutzen diren *leku fisikoez zein esparru sinbolikoaz* ari gara.

Hau da, espazio fisikoa izan daiteke jolastokia, gela, jantokia, komunak, liburutegia, laborategiak, gimnasioa... eta espazio sinbolikoari dagozkio, espazioaren erabilera, banaketa, dauden arauak eta abarrak.

Espazioa hezkidetzailerak izateko, espazioaren erabilerak orekatua eta parekidea izan behar du.

Denbora, berriz, irakaste-ikaste prozesuan jarduera formalek eta ez formalek irauten dutena da.

Denbora hezkidetzailerak izateko denboraren erabilerak orekatua eta parekidea izan behar du.

Hezitzaile batek egin ditzakeen galderak:

1. *Zer da espazioa eta denboraren erabilera sexista?*

Espazio fisikoak emakumeak bazter ditzake.

Zergatik?:

espazioetan burutzen diren jarduerak gizonei zuzenduta daudelako

espazioen erabilerak emakumeen presentzia, parte-hartzea eta protagonismoa murrizten dituelako

Adibidez, ikastetxeetako jolastokiak futbolerako antolatzen direnean, espazio horren erabilera gizonei zuzenduta dago, beraiek futboleko jolasten dutelako, nagusiki.

Eta emakumeen parte-hartzea edo okupazioa oztopatzen delako.

Denbora, berriz, baztertzaila izan daiteke ...

persona batzuei
beste batzuei baino
gehiago ematen
zaienean


persona batzuen ekintzek
beste batzuen intereseko
ekintzek baino denbora
gehiago dutenean;
dedikazioa, denboraren
aldetik, parekidea ez
denean

ESPAZIOA ETA DENBORA

Adibidez, mutilen neskei baino kasu gehiago egiten zaienean.

Gelan mutilak neskek baino zaratsua agertu ohi dira; horrek hezitzailearen arreta handiagoa eskatzen du.

Beraz, hezitzaile eta mutilen elkarrekintza askoz luzeagoa izaten da. Neskek bigarren planoan geratzen ikasten dute.



ESPAZIOA



DENBORA

2. Zergatik da garrantzitsua espazioa eta denbora lantzea?

Alde batetik, bai espazioak, bai denborak identitatearen sorkuntzan duten garrantzia azpimarratu behar da.

Horrez gain, bertan gertatzen diren elkarrekintzak eta elkar eraginak genero rola zein estereotipoak gainditzeko aukera bihur daitezke.

Espazio desberdinetan *egoteak* edo *ez egoteak* izaeran eta garapen pertsonalean eragina izango du.

Sozializazioa, heziketa, prestakuntza, gainerakoak aintzat hartzea, parte-hartze demokratikoa, inguruan dauden nagusien arreta eta dedikazioa, motibazioa, eta abarrak, horren eraginak jota garatuko dira.

Espazioa (kiroldegia, jolastokia, gela, pasiloak, jantokia, komunak, ...) eta bertan erabiltzen dugun denbora, bizikidetzarako gunea ere izan daiteke.

Horretarako, hezitzaileak pertsona guztiak aintzat hartu behar ditu eta elkarlanerako jarduerak sustatu.

Ikasle edo partaide guztien eskubide eta betebeharrak bermatuta daudela ziurtatu behar da, irainek eta mespretxuek ez dute lekurik jardueretan.

Horrela, identitatea norberaren boterean oinarrituta egongo da, nor bere bizitza proiektua diseinatu, kudeatu eta gauzatuko du, pertsona autonomoak sortuz.

Bestalde, norbere espazio fisikoa zein sinbolikoa izatea, eta bere denbora izaten eta defendatzen jakitea oso garrantzitsua da autonomian oinarritutako identitatea garatzeko.



3. Orain arte, zer gertatu da ikastetxeetan?

Jolasguneetan oso arruta da neskak izkinatan eta gune marjinaletan talde txikietan ikustea, bestalde, mutilak gune zentraletan eta begi bistan daudenetan egoten dira.

Jolastoki gehienetan futbolari zentralitatea ematen zaio eta horrek beste jolas motak garatzea oztopatzen du.

Pentsaera sinbolikoan barneratzen da leku zentrala eta publikoa mutilentzat dela, eta intimoa eta pribatua nesKentzat.

Garrantzirik ematen ez zaion prozesu honen ondorioz, neska gehienek arazoak dituzte jendaurrean espazio sozialean aritzeko.

Ikastetxeetan oso erraz ikusten da, esku-hartu ezean, nola espazioaren banaketa hierarkikoa ematen den eta nola mutil nagusiek ume txikiagoak eta neskek bazterten dituzten.

Adibidez, patioa erabiltzeko neska eta mutilen artean egoten diren liskarretan, neskek inhibitu egiten dira eraso eginda sentitu baino lehen.

Etengabeko inhibizio hau, urteek aurrera egin ahala, normalizat hartzen da, eta nesken eta mutilen jokabideetan barneratzen da.

Askotan entzuten den ondoko esaldian nabarmen geratzen da: “neskak ez daude ez dutelako nahi”, edo “ez gaude nahi ez dugulako”.

Orokorrean mutilek erabiltzen dituzten guneak finkoagoak dira eta propio bezala sentitzen dituzte.

Neskek, berriz, nahiz eta jolasguneak izan, edozein momentutan kendu ahal dizkietela sentitzen dute, ez dituzte horren propio sentitzen.

4. Zer aztertu behar da espazioari eta denborari buruzko diagnostikoa egiteko?

- ⇒ Espazioa eta denboraren banaketa (nola, zertarako, norentzat)
- ⇒ Espazioaren eta denboraren erabilera (nola, nortzuk, zerekin)
- ⇒ Espazioetan dauden jarduerak (zeintzuk, zer lortzen da, ...)
- ⇒ Espazioetan izaten diren harremanak (noren artean, zertan oinarrituta).

Datu horiek batu ondoren, interpretatu behar dira, adibidez:

Ematen diren desberdintasunek sexuen arteko hierarkia markatzen dute?

Nork dauka protagonismo gehien?

Zer egiten du protagonismo horrekin?

Zein ondorio ditu?

Espazioen erabileraren ondorioz, zer nolako harremanak sortzen dira?

Aukera berdina dute partaide guztiek espazioak erabili eta meneratzeko?

5. taula: espazioa eta denbora behatzeko fitxa (I):

Zer behatu		behatu takoa	ondorioak	zer aldatu	zer mantendu eta sendotu
banaketa	Nola				
	Zertarako				
	Norentzat				
erabilerak	Nola				
	Nortzuk				
	Zer erabiltzen da				
jarduerak	Nortzuek burutzen dute				
	Zer lortzen da				
harremanak	Noren artean				
	Zertan oinarrituta				
	Zertarako				

ESPAZIOA

6. taula: Espazioaren erabilera aztertzeko galdetegia

Galdera	Neskak?	Mutliak?
Nor mugitzen da gehiago...		
Nork okupatzen du leku gehiago...		
Nor egoten da gehienetan kirolgunetan...		
Nor egoten da gehienetan arkupeetan, izkinetan, isilpean, ...		
Nor "ikusten" da gehiago klasean, bileretan, espazio publikoetan...		
Nork dauka bere mahaia txukunago...		
Hezitzaileak nori hitz egiten dio gehien...		
Hezitzaileak nor goretsi du gauzak eta lekua txukun izateagatik?		
Hezitzailea konturatu da nor izaten den baztertua espazioaren erabilera sexista dela eta?		
...		

ESPAZIOA ETA DENBORA

7. taula: Denboraren erabilera aztertzeko galdetegia

Galdera	Neskak?	Mutilak?
Nork eskatzen du denbora gehiago gelan, jolastokian, eskoletan...		
Nork okupatzen ditu gehien kirolguneak...		
Nor egoten da denbora gutxiago espazio publikoetan...		
Nork erabiltzen du bere denbora eskubideak aldarrikatzeko...		
Nork ematen du denbora gehiago aisialdirako..		
Nork ematen du denbora gehiago lanerako...		
Nork ematen du denbora gehiago hezitzaileekin...		
Hezitzaileak norentzat ematen du denbora gehien?		
Hezitzailea konturatu da nor izaten den baztertua denboraren erabilera sexista dela eta...		
...		

Espazioa irudiz eta hitzez ere osatzen da.


Pertsonen erabilpenaz gain, irudietan, posterretan, marrazkietan, oharretan neska eta mutilen presentzia nolakoa den aztertu behar da.


Erabileran sexismoa dagoela ondorioztatzen bada, erabilera arautu behar da.

Adibidez, mutilek intereseko posterrak edo kartelak jartzeko gelako horma guztiak hartzen badituzte; gela bi zatitan banatuko da: bat neskek nahi duten bezala erabiltzeko, eta bestea, mutilek erabil dezatela ere nahi duten bezala, baina, beti neskek espazio propioa dutela ziurtatuz.

Gerta daiteke espazio horietan neskek edo mutilek irudi edo mezu sexistak jartzea.

Ez dugu debekatuko baina bai beraiekin kritikoki aztertu.





ESPAZIOA ETA DENBORA

5. Espazioaren erabilera egokia egiteko zenbait aholku:

⇒ Espazioa eta denbora arautu.

Hau da, neskei mutilek dituzten aukera berdinak eman behar zaizkie, denborak eta espazioaren erabilerak parekoa izan behar du.

⇒ Espazioak mistoak izan daitezzen, neskak eta mutilak elkarrekin egotera ohitu, baina neskak kaltetuak egon barik.

Horretarako programa zehatzak sortu beharko dira: egiten diren ekintzak ondorio onak lortu behar ditu neskenentzat.

Adibidez, askotan komunak mistoak izan behar direla aldarrikatzen dugu, baina mutilek komun erabilera ez egokia egiten dutela demostratu egin da (zikinago egoten dira, liskarrak egoten dira...)

Aldez aurretik, ezer egin gabe misto bihurtuko bagenu, nesken kalterako izango litzateke, mutilen “zikinkeria” jasan beharko lukete.

Beraz, komunen erabilera egokirako programa berezi batean parte hartu beharko lukete mutilek, esaterako, zelan egin pisa eserita, zergatik garbitasuna, zertarako intimitatea...

⇒ Jolasguneetan jolas desberdinak bultzatu.

Berriro, errepikatuko da: programatu behar da: *zer lortu nahi dugu?, zelan egingo dugu?, zelan sentituko dira?, zelan ebaluatuko dugu?*

⇒ Neskak pixkanaka espazio zentraletan eroso sentitzeko dinamikak landu.

⇒ Mutilei behar den momentu guztietan zentralitatea kendu.

⇒ Sexu eta adinen arteko hierarkiak gutxitu, elkarrekin dinamikak egiten entrenatu, adin berdineko neskek eta ume txikiek pisu gehiago hartuz.

⇒ Komunikaziorako eta lasaitasunerako guneak sortu.

⇒ Guneak aldatu eta malgotu, guztiok erabili ahal izateko.

Espazio ez sexistari buruzko hausnarketa egiteko adibide bat:

Zure ikasgelan hausnarketa hau egitea proposatzen dizugu:

GALDERA	ESKU-HARTZEA
<p><i>Ikasgelako lekua era parekidean banatzen da?, neskek eta mutilek esparru guztiak erabiltzeko aukera bera dute?</i></p>	<p>Arbela, hormak, mahaietako kokapena, apalak, kortxoak, ... nesken erabilerarako direla argi geratu behar da.</p>
<p><i>Zelan erabiltzen da?</i></p>	<p>Nesken interesak 'ikusit' behar dira –beren posterrak, lanak, izenak, ...-; neskek ez dira mesprezaturik edo baloratu gabe agertu behar –esaldietan, irudietan, roletan, ... Mutilei mutila izatearen eredu berriak, ez estereotipatuak, eman behar zaizkie. Irudi eta mezu ez sexistei espazio propioa eman ahal zaie, eredu hori indartuz.</p>

GALDERA	ESKU-HARTZEA
<i>Neska eta mutilek modu parekidean erabiltzen dute lekua -fisiko eta soziala -?</i>	Neskek elkarrekin egoteko aukera izan behar dute, gelako leku 'garrantzitsuetan' egon behar dute, ...
<i>Eta nire eskola-orduetan?</i>	<p>Hezitzaileak eskola orduetan arreta berdina eman behar die neska zein mutilei.</p> <p>Mutilen zaratari ez dio kasurik egin behar eta neskek errepikatzen dituzten era sexistak desbalorizatu behar ditu.</p>
<i>Nortzuek betetzen dute leku gehien?</i>	Mutilak badira, murriztu behar da, mahaiak, jarduerak, ... aldatu beharko dira, neskek leku gehiago irabazteko.

GALDERA	ESKU-HARTZEA
<i>Nortzuk "ikusten" dira eta nortzuk ez?</i>	Mutilak gehiagotan 'ikusiak' badira (irudietan, jartzen diren adibideetan, aipatzen diren izenak, mugitzen, ...), neskak ikustarazteko jarduerak egin beharko dira.
<i>Nortzuei "entzuten" zaie eta nortzuei ez?</i>	Mutilei gehiagotan 'entzuten' bazaie (elkarrizketan, jartzen diren adibideetan, galderei erantzutean, ...), neskak entzunaraziak izateko jarduerak egin beharko dira.
<i>Nortzuek "kentzen" diete "lekua" nortzuei? Nortzuek ez dute "lekurik"?</i>	Neskek ez badute mutilek duten beste esparru, eman beharko zaie, horretarako jarduera zehatzak prestatuko dira.

GALDERA	ESKU-HARTZEA
<p><i>“Berdin” tratatzen ditut ikasle edo partaide guztiak?</i></p>	<p>Ezberdinak direnak berdin tratatzea ez da justua, behar desberdinak dituztelako. Beraz, partaide bakoitza, beharren arabera tratatuko dugu.</p>
<p><i>Nortzuek eskatzen (eta lortzen) dute/didate arreta?</i></p>	<p>Mutilak badira aztoratuta daudelako, tonu baxuarekin isiltzeko eta lasaitzeko behin edo birritan eskatuko diegu. Ez badugu lortzen jokaeraz aldatzea, aztoratuta duden horiek baztertuko ditugu, lasai daudenekin arituko gara. Borobil batean eserita, talde bat egin daiteke, , beraiei zuzenean hitz egingo diegu, besteei kasu ez diegu egingo ezertarako ere ez.</p>

GALDERA	ESKU-HARTZEA
<p><i>Nortzuk dira "protagonistak", hots, subjektuak? Nortzuk dira "objektuak"? (Adibidez: "altzairu baten modukoa da"?)</i></p>	<p>"Altzairua" denarekin aritu behar dugu: galdetuz, begiratzuz, barre eginez, keinuak eginez, pasibotasunetik ateraz, ...</p>
<p><i>Zelan banatzen dira/ditut klaseko rolak, ardurak, erantzukizunak, aukerak... zigorrak eta sariak?</i></p>	<p>Gizon edo emakumeen ohiko estereotipoen arabera bada, rolak aldatu eta erantzukizunak elkartrukatu. Egoera berriak sortu behar dira.</p>
<p><i>Zelan zaintzen dute ikasgela? Ordena, txukuntasuna.... guztion ardura da?</i></p>	<p>Gelako txukuntasuna guztion gauza da, neskek zein mutilek jakin behar dute. Beraiekin zelan, nor, noiz txukundu behar den adostu ahal da plangintza bat eginez.</p>

Galdera hauekin guztiekin erregistro fitxa egin ahal da eta aste betez, galdera bakoitzeko erregistro fitxa osa daiteke. Behin eginda, zer gertatzen ari den jakingo dugu. Adibidez:

8. taula: Hausnarketarako erregistro fitxa

Nortzuek lortzen dute nire arreta?					
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
Zein momentutan					
Zertarako					
Zelan jokutzen dut					
Zer lortzen dute					
Zer lortzen dut					
Zer egin dezaket					
...					

Espazio sexista gainditzeko bitartekoak (erreferentzi bibliografikoak, web guneak, aholkulariak, esperientziak, material didaktikoa,...):

- ⇒ Acuña, Sara eta lankideak. (1995). *Coeducación y tiempo libre*. Madril: Popular.
- ⇒ Bonal, Xavier. (1998). *Cambiar la escuela: La Coeducación en el patio de juegos*. Bartzelona: UAB.
- ⇒ Emaisia Elkarte. (2004). *Astia, aisia, emakumeak*. Bilbo: Emaisia Elkarte.
- ⇒ Hernaniko Udala. (2005). *Berdintasunezko jolastokia. Hezkidetzaren eta espazioaren gaineko baliabideen gida*.
- ⇒ LAB. *Denboraren erabilera*. Koadernoak.
- ⇒ Urtxintxa Eskola. (2000). *Jarduera Hezkidetzaillea Eskuliburua*. Bilbo: UrtxintxaEskola. www.urtixtxaeskola.org
- ⇒ Urtxintxa Eskola. (2003). *Jolas ez sexisten bilduma*. Bilbo: Emaisia Elkarte
- ⇒ <http://www.edualter.org/material/dona/patio.htm>. Web gune honetan alde teorikoa eta jolastokiak behatzeko fitxak eta metodoak azaltzen dira. Oso praktikoa.

Definizioa:

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua baloratzeko eta hobetzeko egiten dugun *hausnarketa*.

Ebaluazioak prozesuan zehar eman diren aldaketak ezagutzea ahalbidetzen du.

Irakasteko eta apendizaiia lortzeko beste *metodo* bat izan behar du eta ez norabide bakarra duen azterketa hutsaren bidez egiten den epaiketa.

Hezitzaile batek egin ditzakeen galderak eta erantzunak:

1. Zer da ebaluazio hezkidetzaillea?

Partaide guztiengan ematen diren aldaketak behatu eta kontrastatzea, partaidearen integritasuna kontuan hartuz eta balorazio sistema irizpide ez androzentrikoetatik sortuz.

Ebaluazio mota honen ezaugarriak ondorengoak dira:

- ⇒ Nork bere buruaren ebaluazioa burutzen du.
- ⇒ Alderdi positiboak islatzen ditu.
- ⇒ Hobetzeko proposamenak jasotzen ditu.

- ⇒ Ebaluazioaren eragilea partaidea da.
 - ⇒ Asebetetze maila neurtzen du.
 - ⇒ Sentimenduak kontuan izaten ditu.
 - ⇒ Autoestimua egokia lortzeko eta norbere ezagutza sustatzeko baliagarria da.
 - ⇒ Informazio iturri ezberdinak kontuan izaten ditu (norbera, ikaskideak, hezitzaileak).
 - ⇒ Erabiltzen ditugun balorazioak ez dira estereotipatuak.
- Mutilen zein nesken jokabideak irizpide eta jarrera berarekin ebaluatzen dira.

EBALUAZIOA

2. Zertarako balio du ebaluazio mota honek?

Ebaluazioak berak gainditze jarrerak eta autoestimua maila progresiboak lortzeko balioko luke; pertsona bakoitzari errealitateari egokitutako auto-kontzeptua eratzen laguntzeko, norbere buruaren behaketa, autokritika eta autoerregulazioa, baloraziorako irizpide izan beharko liratekeelako.

Bere funtzioak honako hauek dira:

FORMATIBOA

Ikasteko balio behar duelako, eta hau erabiliz prestakuntza, edozein mailatan, hobetu egin nahi delako. Hausnarketa, intuizioa, kritika, sormena, justizia, sentimendua, konpromisoa,... bultzatu behar ditu.

HEZTE PROZESUAREN BAITAN

Ebaluazio prozesua irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren zati bat da, ikaskuntza helburuak izan behar ditu, bai aldatu nahi den fenomenoari buruz, bai helburuak eta xedeak lortzeko tresna eta prozeduraren hobekuntzari buruz.

ZUZENTZAILEA

Errealitatea hobetzen edota aldatzen lagunduko gaituzten datuak eskainiko dizkigulako.

Jasotako informazioaren azterketa sistematikoaren bitartez, egindako ekintzen balioa edo merezimenduak neurtu ahal dira.

INFORMATIBOA

Partaideak aurrerapenen edo akatsen inguruan informatu egin behar ditu, alternatibak eskainiz eta bere gaitasunekiko konfiantza maila areagotzeko bideak ahalbidetuz.

3. Zer ebaluatzen da?

- ⇒ Landutako jarrerak, prozedurak eta kontzeptuak, bakoitzerako tresna egokiak erabiliz.
- ⇒ Gizonezkoen eta emakumezkoen estereotipo sexistek partaideengan izan dezaketen eragina, hasierako ebaluazioan.

Partaidearen ikaskuntza prozesuari dagokionaz gain, hezitzaileak egiten duena, materiala eta baliabideen erabilera, egindako jarduerak, gelako lan giroa eta antolaketa, harremanen asetze maila...

EBALUAZIOA

4. Nola ebaluatzen dira jarrerak?

- ⇒ Jarreraren hiru osagai kontuan izanik: egiten dena, pentsatzen dena eta sentitzen dena.
- ⇒ Nork bere buruaren ebaluazioa ardatz izanik.
- ⇒ Nor bere buruaren ezagutzaz eta komunikazioaz baliatuz.
- ⇒ Estrategia ezberdinak erabiliz: behaketa, autobehaketa, datuen bilketa, elkarrizketak...
- ⇒ Era sistematikoan.
- ⇒ Hobetzeko modua eta konpromisoa jasoz. Maiztasun-irizpidea erabiliz, datuak jasotzeko.

5. *Nork ebaluatzen du?*

Partaidea bada ikaskuntza prozesuaren eragile nagusia, honetan ere berak izan behar du protagonismoa.

Ebaluazioaren ardatza nork bere burua ebaluatzea izan behar du.

Horregatik autoebaluaziorako txikitatik prestatu behar ditugu.

Honek laguntzen du, nork bere autoritatea eta boterea garatzeko beharrezkoak diren autonomia eta erantzukizuna lantzen.

Partaideak bere prozesua ebaluatzeko informazio iturri ezberdinak erabiliko ditu: hezitzaileena, ikaskideena, berea eta gurasoena.

Ebaluaketa ez sexistak diseinatzeko/programatzeko/erabiltzeko /... adibideak:

Hau izan daiteke:

9. Taula: nork jarrerak ebaluatzeko azken txantiloia (I)

<i>jarrerak</i>	<i>loru eta ikasi dudana</i>	<i>izan ditudan zailtasunak</i>	<i>konpontzeko egingo dudana</i>
Sentsazio positiboak aurkitu ditut			
Lagunekin harremanak hobetu ditut			
Zalantzak izan ditudanean galdetu dut			
Arretaz eta errespetuz entzun dut			
Karguan ardura hartu dut			

- ⇒ Jarrera horiek izaterakoan nola sentitu naiz?
- ⇒ Topatu ditut niregan alderdi berriak?

9. Taula: nork jarrerak ebaluatzeko azken txantiloia (II)

Jarrerak egin badituzu, marraztu aurpegi hau:



<i>jarrerak</i>	<i>astea</i>	Al.	Ar.	Az.	Og.	Oi.	aurpegi kopurua
Nire amak egiten dituen g a u z a garrantzitsuez jabetu naiz							

⇒ *Guztira:*

⇒ *Konpromisoa:*

10. taula: Hezitzaileak ebaluazioari buruzko hausnarketa burutzeko galdetegia

<i>galdera</i>	<i>bai</i>	<i>ez</i>
Zer garrantzia ematen zaio ebaluazioari nire ikastetxean?		
Neska edo mutila izateak baremazio desberdinak baldintzatzen du? Zein da argudioa? Argudio hori sexista da?		
Partaideen jarrerak eta ezagutzak garrantzi berdina dute ebaluatzerakoan?		
Neska baten edo mutil baten informean hitz berdinak erabiltzen ditut? (ordenatua da, inurri bat bezalakoa da, txukuna da, bizkorra da, gaitasun handikoa, azkarra da, sormen handikoa da, ...)		
Emaitzetan espektatiba desberdinak ditut?		
Neurriak hartu ditut ebaluatu baino lehen sexismoak ez jotzeko?		
...		

Ebaluaketa sexistak gainditzeko bitartekoak (erreferentzi bibliografikoak, web guneak, aholkulariak, esperientziak, material didaktikoa,...):

- ⇒ Salas García, Begoña eta lankideak. (1997). *Ikastetxearen hezkidetzaren eredu egiteko gida*. Gasteiz: Emakunde.

- ⇒ Salas García, Begoña eta lankideak. (1997). *Ikastetxearen hezkuntza- eta curriculum-proiektua egiteko baliabideak*. Gasteiz: Emakunde.

- ⇒ Herreros, Victoria; Irigoien, M^a Jesus; Romero, Teresa; Salas, Begoña; Serrano, Inmaculada. (2005). *Bizitzarako gaitasunak eta balioak. Bizikidetzaren tutoretza*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Grupo Pentacidad.



➤ **Androzentrismoa:**

Gizona da gauza guztien ardatz nagusia eta errealtatea definitzeko erreferentzia.

Honen eraginez, gainontzeko guztia ikusezintasunean uzten du, honen barnean eta nagusiki, emakumeok egindako ekarpenak jendartean.

Ikuspegi androzentrikoa gizonaren eredu eta esperientzia unibertsaltzat hartzen du.

➤ **Aukera berdintasuna:**

Aukera berdintasuna zuzenbide eta soziologiatik sortzen den kontzeptua da, alor horietan emakumeen emaitzen berdintasuna eta emakumeen ezberdintasun eta diskriminazioa orekatzea bermatzen duen neurria da.

Aukera berdintasunaren helburua esku hartze

eremuak sortzea da emakume eta gizonek jendartearen alor ezberdinetan baldintza, autonomia eta erantzukizun berdinarekin libreki parte har dezaten ahalbidetzeko.

Hau nolakotasun terminoa da eta giza eskubi-deekin lotura zuzena du.

Emakumeen mesedetan, hauen bizi kalitatea hobetzeko bitartekoa da, eta honetarako *ekintza positiboak* erabiltzen ditu.

➤ **Aurreiritzi sexistak:**

Pertsona bakoitzak dituen ezaugarri biologikoengatik, zenbait rol edota portaera emakume eta gizonekin lotzean datza.

Pertsona, objektu eta kontzeptuei buruzko balore epaien formulazioa, generoaren hierarkizazio diskriminatzailetik (ahula = emakumea, gogorra = gizona).

➤ **Autoestimua:**

Nork bere buruarekiko duen balorazio jarrera. Nork bere buruaz duen iritzi positiboa edo negatiboa.

Jendartean norberarentzat eredugarri diren pertsonen iritziak norberaganatuz edo barneratuz eratzen da.

➤ **Autonomia:**

Zerbaitek edo norbaitek, alor batean edo oro har, bere kabuz aritzeko duen askatasuna edo askatasun-maila.

➤ **Boterea:**

Hierarkikoki egituratzen diren jendarteko harremanak, hau izango litzateke botere harremana: harreman batean alde batek bestea obeditzea lortzeko duen gaitasuna, erresistentzia edo adostasun eza izan arren. Horrela, sexuen

arteko harreman sozialei botere patriarkarraren harremanak dei diezaiekegu, hau da, gizona emakumeari gainjartzen zaio.

Feminista batzuek emakumezkoen artean eraiki beharreko bestelako botere mota bat aldarrikatzen dute, honela, emakumeek era ezberdinean, modu justuagoan, ez hain bortitzean eta era ulerkorragoan aginduko genukeelakoan.

➤ **Curriculum ezkutua:**

Edozein ikaskuntza prozesuan, hezkuntzan agerian ez dauden, eta beraz, kontzientzian ez ditugun aspektuak sartzen ditu, zalantzan jartzen ez direnak, plangintzan sartzen ez direnak eta neurtzen ez direnak.

Guneen, denboraren erabilpenean, lengoaiari, harremanetan, antolakuntza egituretan... adierazten diren baloreak, arauak, jarrerak, sentimenduak, ohiturak,... izan daitezke.

Curriculum ezkutua ez da inoiz neutroa, ezta objektiboa ere, kontzientzia sortzailea da eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesu hori garatzen deneko gizartearen kultura eta ideologia nagusiaren ugaltzailea ere.

➤ **Diskriminazio positiboa:**

Sexu eta talde sozial baten egoera kaltetuaren onarpena eta desoreka hau konpentsatzeko joera.

Ekintza positiboa diskriminazio positibotik, sexuaren arabera, gure jendartean dauden ezberdintasunak konpentsatzeko ezartzen den neurrien multzoa da.

➤ **Ekintza positiboa:**

Ekintza positiboak behin behineko neurriak dira, aukera berdintasuna lortzeko abiapuntua eta trataera berezia.

Bestelako neurri batzuekin dute zerikusia, diskriminazio positiboarekin adibidez, heldulekua da emaitzen hasiera bermatzen duten neurriak.

Ekintza positiboa desabantaila egoeran daudenei mesede egiteko estrategia da, abantaila dutenen maila bera lor dezaten, horrela une konkretu batean aukera berdintasunera heltzeko.

➤ **Emakumeonganako indarkeria:**

Genero maskulino eta femeninoan eragiten duten baldintza soziokulturalen ondorioz, emakumea gizonarekiko mendetasun maila batean kokatuz, emakumeok pairatzen dugun indarkeria da.

Egiturazkoa da, jatorri eta oinarria, ezarritako jendarte-ordena erabakitzen duten arau eta balio soziokulturaletan dauzkalako.

Jendarte patriarkarretik jaio eta honen elementu egonkortzaile moduan jokutzen du.

➤ **Eremu pribatua / publikoa:**

Patriarkatuak bereizten dituen bi eremu. Sexuen arabera, lanak eta denborak egokitzen dituelarik.

➤ **Eremu pribatua:**

Etxeko ardura, funtzioa eta lanari dagokiona.

Gure kulturak emakumeei egokitua, hori dela eta, ezin izan dutelarik esparru honetatik kanpo antolatu, administratu, erantzukizunak hartu eta beste gune batzuk bete.

Gainera, dohainik egin dute lan eta etxean egin beharreko guztiaz eta familiaren zaintzaz arduratu behar izan dira. Ez da onartu, eta ez

da onartzen bere jendarte balioa. Hasierako ikaskuntzekin ezartzen da (jolasak, portaeren aldaketa,...). dena.

➤ **Eremu publikoa:**

Ekoizpenarekin lotuta dagoena. Jendarte mailako ardura, funtzio eta zereginei dagokiona, era ezberdinetan onartuak eta sarituak direnak (soldatak, jendarte statusa,...).

Tradizionalki gizonei egokitu zaie eta bertan mugitzen denaren boterea eta kontrola eskaini zaie.

Arlo akademikoan, gizonezko eta emakumezko kideekin dauden elkarrekintzak ezartzen ditu batzuentzako eta besteentzako mugak.

➤ **Espektatibak:**

Mundua ulertzeko moduak, beste pertsonen portaera eta lorpenetan eragina dutenak.

Jendarte espektatibak, emakume eta gizonek, jendarte horrek dituen genero estereotipoaren arabera erantzutea espero dute.

➤ **Estereotipoa:**

Komunitate jakin bateko kideei inposatzen zaien portaera sozialaren ereduak, aurretiaz ditugun iritzi eta baloreetan oinarritzen dena.

➤ **Feminismoa:**

Emakumeen eta gizonen arteko eskubide berdintasunaren alde borrokatzen duen ideologia eta mugimendua.

Errealitatea, hau da, botere erlazioak, jendarte egiturak eta sexuen arteko erlazioak emakumearen ikuspegitik interpretatzen ditu.

Egungo sexu genero sistemak sortutako ereduak gaituz, jendartearen eraldaketa aldarrikatzen du.

Korrante ezberdinak dauden heinean definizio ezberdinak ere aurkituko ditugu.

➤ **Generoa:**

Ikuspuntu psikologiko eta soziokulturaletik gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna erakusten du.

Eraikuntza sozial batetik abiatu eta kulturalki eraikitako zenbait (sexu bereizketan oinarrituta) rol eta balore ezberdin egokitzen ditu.

Maskulinoa eta femeninoa sailkapenari deritzogu.

➤ **Hezkidetza:**

Bere banakotasun, berezitasunaren arabera, izaera ezberdinak onartuz, generotik at egiten den pertsonen hezkuntza litzateke.

Irizpide sexistek barnebiltzen dituzten, gizon eta emakumeei egokitutako rol, balore, portaerak e.a. transmititu gabe heztea da.

Kontzientea den prozesu hezitzailea da eta neska eta mutilen arteko aukera berdintasunean oinarritzen da.

Pertsonen garapen integrala lortu nahi du.

➤ **Jendarteratze prozesua:**

Pertsona batek kultura barneratzen dueneko prozesua, baloreak bereganatuz eta jendarte baten ohitura eta joeretara moldatuz.

Homogenotze funtzioa du, hau da; arau eta iguripen sozial berberak pertsona guztientzat, baina aldi berean, ezberdintze funtzioa du, sexuaren arabera, adina, maila sozio-ekonomiko, kulturalaren arabera...

Beraz, Sozializazioaren edukia ezberdina da sexuaren arabera.

Emakumeok esparru pribatuan jarduteko, gertzeko sozializatzen gaituzte eta ugalketarako bideratuak gara.; eta gizonok, esparru publiko-etara, hor aurrera egiteko, ekoizpenerako bideratuak.

Sozializazioa bera aztertua izan beharko du, emakume eta gizonak muga gutxiago izan dezaten eta honekin batera, aukeratzeko gaitasun eta askatasun gehiago izateko.

➤ **Matxismoa:**

Aurreiritzi soziala. Gizonezkoen baloreei eta ezaugarriei lehentasuna ematen zaie jendarte osoaren barnean, emakumeak menpean hartuz.

Patriarkatuaren ondorioz ikasitakoa eta emakumearen zapalkuntzarekin ados egon ez arren era inkontziente batean izan ditzakegun jarrerak dira.

➤ **Parekidetasuna:**

Berdintasun hitzak emakume eta gizona izateko era ezberdinak uniforme bihurtzen ditu.

Emakumeok gizonak bezalakoak izan nahi dugula aurreiritzen da eta hori gehiegi esatea litzateke.

Pareko eta parekide hitzak “paraleloa, antzeko eta maila berekoa” adierazteko erabiltzen da.

Kide hitza berriz, sail, multzo, elkarte bereko pertsonari dagokio.

➤ **Patriarkatua:**

Literalki, aitaren boterea esan nahi du.

Baina, ikuspegi feministatik, gizonak emakumearekiko duen dominazio sistemari esaten zaio.

Arazo ideologikoa izan arren, (mendebaldeko demokraziak horrela argudiatzen du, aldatu behar den bakarra jendartearen pentsamoldea dela esanez) dimentsio ekonomikoa, politikoa eta ideologikoa dauka.

➤ **Sexismoa:**

Sexismoa sexu bateko pertsonak diskriminatzea edo gutxiestea izango litzateke, beste sexua baino gutxiago delakoan, gure kasuan emakumezkoena.

➤ **Sexua:**

Desberdintasun biologikoa (maila genetiko, endokrino eta neurologikoan) azaltzeko erabiltzen den terminoa. Arra eta emea sailkapenari dagokiona.

a-Euskara ez sexista

EMAKUNDE	<i>ez erabili</i>	<i>erabili</i>
	'izena+gizon' egitura (legegizon, elizgizon)	'-ari' atzizkidunak edo 'langile'
	Aitak, semeak, ... gisa honetako kalko orokortzaileak	Gurasoak, seme-alabak, neska-mutilak, ...
	Zuzendari jauna	Zuzendaria Zuzendari jaun/andrea Zuzendari jauna edo Zuzendari andrea

<i>ez erabili</i>	<i>erabili</i>
'-sa' atzizkia (laborarisa, jainkosa, alarguntsa, abadesa, alkatesa)	Alarguna edo Gizon/emakume alarguna
Hitanoa (talde mistoetarako)	Zuka
erdatatikako itzulpenetan hizkera sexista saihesteko perifrasi batzuk beharrik gabe ez mantendu	
	Jendartea bi generok osatzen dugu, bien interesak asetu behar dira
	Pareko tratamendua eman behar zaie emakume eta gizonei

EMAKUNDE

<i>ez erabili</i>	<i>erabili</i>
Ez dira lotu behar estereotipoak eta jendarte-paperak, lanbideak, sexuak	
	Pertsonak izen, abizen, kargu, lanbidez identifikatu behar dira, ez 'andre'az
Ahaidetasun-erreferentzia alferrekorik ez egin	
Ez gutxietsi edo oztopatu emakumeen ekintzak hizketaren bidez	

EMAKUMEEK DIOTE ETA ERAIKIZAN

<i>Ez erabili adiera generikoan</i>	<i>erabili</i>
Gizaki, gizon	Jende(ki), pertsona
Gizarte	Jendarte
Anaiak	Haurrideak
Anaitasuna	Haurridetasuna

ÁLVARO GARCÍA MESEGUER

<i>ez erabili</i>	<i>erabili</i>
Etxebarria jauna eta bere emaztea	Etxebarria jauna eta Lertxundi andrea
Zuzendari jaunak esan du eta neskak hori bulegora joan da	Zuzendariak esan du eta sailburuordea bulegora joan da
Langileak greba egiten ari ziren plazan eta haien emazteek bazkaria ekartzen zieten	Langileak greba egiten ari ziren plazan eta boluntario batzuk bazkaria ekartzen zieten
Kontuz estereotipoekin	
	... eta pertsonak sua aurkitu zuen
Zer, hilekoarekin zaude, ezta?	

LAB

<i>Ez erabili</i>	<i>erabili</i>
Gizonak badu inguru latz bat	Pertsonak badu inguru latz bat
Mutilek jolastu behar dute	Neska eta mutilek jolastu behar dute
	Bibliografia aipuetan izena osorik idatzi, ez iniziala bakarrik
Lehengusuak etorri dira	Lehengusu-lehengusinak etorri dira Lehengusina-lehengusuak etorri dira
Gazte, langile, agintari, ... (adiera maskulinoarekin)	Mutil gazte, gizon langile, gizaseme agintari,...

aholkuak

Mezuen atzean dagoen simetria faltan, anbiguotasunean, sexismoan erreparatu.

Ez galdu alderdi anekdotikoetan (@ ren zuzentasuna gaztelaniako generikoa osatzeko adibidez).

Emakume eta gizonen arteko harremanen azterketa egin.

Adi egon, gizartean lortu ditugun aldaketa txikiak oso erraz galdu ditzakegu eta (Anuntzi Aranek esaten du "aitzinamenduak ez dira(la) itzulezinak").

ERANSKINAK

b- Tutoreszetan garatzeko eduki ez-sexistak (1)

edukiak	3-6 urte
<p>Genero estereotipok (azterketa; konturaztea, krikak, baloratzea, konponbideak, aurreiritziak...)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nor naiz ni? • Gorputza • Etxeko esparrua (rolak, lanak, ...) • Jolasak-josiailuak: lagunak; • Publizitatea • Ipuinak • ...
<p>Emakumeen eskubideak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Autoestimua. • Sentimenduen odierazpena • Balezkapena • Norberakiko konfiantza • Lagunak egiten eta mantetzen jakitea • Aniztasuna • Hizkuntza ez sexista
<p>Emakumeen eskubideetan ezteko trebestasunak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza: Iroinak, mina ematea • Portuera negatiboak posibiltzatzea. • Partaidetza orekatua

b- Tutoretzetan garatzeko eduki ez-sexistak (II)

ERANSKINAK

edukiak	6-9 urte
<p>G e n e r o estereotipoak (azterketa: konfuzaraztea, k r i t i k a , baloratzea, konponbideak, aurreiritziak...)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nor naiz ni? • Gorputza • Etzeko rolak • Jolasak: lagunak • Gustuak (kirolariak, abeslariak, ipuinak, jostailuak, ...) • Komunikabideak • ...
<p>Emakumeen eskubideak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzea • Hizkuntza • Araudia • Nesken eskubideak • Indarkeria zer den • Indarkeria adierazpenen identifikazioa. • Arazoan konponketa zer den • ...
<p>Emakumeen eskubideetan h e z t e k o trebestasunak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Autoestimua. • Baleztapena • Aseribitatea. • Emozioak bizitzen jakitea. • Errespetua. • Bizikidetzak. • Arazoak konpontzen jakitea • Aniztasuna. • Hizkuntza ez sexista

b- Turoretzetan garatzeko eduki ez-sexistak (III)

ERANSKINAK

edukiak	9-12 urte
<p>G e n e r o estereotipoak (azterketa: konturaztea, k r i t i k a , baloratzea, konponbideak, aurreiritziak...)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Identifikatzea • Neska eta mutilen eredu sozialak • Etxeko rolak (horbera etxean: lanak, erantzukizunak, denborak, ...) • Lagunak • Eskolako espazioak, arloak, irakasgaiak. • Gorpuzia • Osasuna (kirrola) • Eguneko estetika. • Komunikabideak • Loguntasuna • ...
<p>Emakumeen eskubideak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hatzea • Tratu onak • Pertsonen eskubideak (emakumeen eskubideak) • Indarkeria zer den • Indarkeria adierazpenen identifikazioa • Arazoen konponketa zer den • Emakumeen kontrako indarkeria. • ...
<p>Emakumeen eskubideetan h e z t e k o trebestasunak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Autoestimua • Komunikazio hezikidetzailea. • Atekitilatzea. • Hezkuntza sexu-afektiboa • Espazioen erabileria. • Errespetua • Loguntasuna • Komunikazioa • Parekideatasunaren printzipioak.

b- Tutoretzetan garatzeko eduki ez-sexistak (IV)

ERANSKINAK

edukiak	12-16 urte
<p>G e n e r o estereotipoak (azterketa: konturazatea, k r i t i k a, baloratzea, konponbideak, aurreiritziak...)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Identitatea. • Gorputzaren bizipenak. • Osasuna: zaintza, elikadura, kirola, • Jendarteratze prozesua. • Maskulinitatea. • Lagunen harremanak. • Lambideen orientazioa. • Eskola-etxea. • Eguneko estetika • Heدابideriak; prentsa, teknologia berriak, TB, ... • Laguntasuna • ...
<p>Emakumeen eskubideak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzea • Pertsonen eskubideak (emakumeen eskubideak) • Parekidetasunaren printzipioak. • Indarkeriaren kontzeptuak • Indarkeriaren zergatiak, ondorioak eta irtenbideak. • Arazoan konponketa zer den. • Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko programak. • ...
<p>Emakumeen eskubideetan hezteko trebestasunak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Autoestimua • Komunikazioa • Errespetua • Atekitibitatea • Hezkuntza sexu-afektiboa • Laguntasuna • Komunikazioa • Arazoan konponketa. • Erabakiak hartzen jakitea.



Laguntzailea: Bizkaiko Foru Aldundia